

6

Elebitasun pasiboa

Estibaliz Amorrortu
Joxe Manuel
Odriozola

15

Paper gutxi kontsumitzen duen herri-administrazioa helburu


Gorane Ibarra

22

Oinarrizko softwarea: euskaraz erabiltzen duzu?

Araceli Díaz de Lezana

Alberto Schommer:
“Talentua da inportanteena, ez argazkigintza digitala”



Autorretratua.

Alberto Schommerrek erakusketa egin zuen Bilboko Arte Eder Museoa udaberrian: “Atzera begirakoa, 1952-2009”. Berrogeita hamazazpi urteko bide luzean egindako lan artistiko behinena izan genituen ikusgai bertan. Elkarrizketaren harian, erakusketa hori aipatuagatik ere, artelanaren barrunbe teorikoagoetan barrena abiatu zaigu, artelanak behar dituen ezaugarriak alean bihituz: *polit, edertasun, eraiki, begirada...* Ohi duenez, elkarrizketa iraularazi dio kazetariari, beti bat eta bera diren elkarrizketak aldatzeko joerari eutsirik.

8. or.

Eztabaida:

Enplegu publikoa krisi garaian

Krisi ekonomikoaren astindua munduko herrialde guztietan nabaritu da, eta gehienetan langabe kopuru altua da krisiaren seinale nagusiena. Herrialdeak neurriak hartzen ari dira gastu publikoa murrizteko, tartean enplegu publikoa. Krisi garaian gizartearen zerbitzura dagoen enplegu publiko hori nola kudeatu behar den jakin nahi izan dugu, eta horren gaineko hausnarketa eskatu diogu hainbat adituri.

14. or.

Erreportajea:
Geldirik egoten ez dakiten adinekoak

Zahartzea gertaera naturala da, baina gizon-emakume asko bizitzaren azken etapa horretara iristen direnean bakarrik sentitzen dira, eta hutsune handia sentitzen dute. Zahartzarora nostalgiaz eta tristoraz bizi duten horien aurrean daude bizitzako azken etapaz baikortasunez gozatu nahi duten adinekoak. Eguneko orduak antzerkian, mendian, ikasten edota dantzan ematen dituztenen testigantzak jaso ditugu.

16. or.



PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenhakí honetako lankideak:
Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Estibaliz Amorrortu, Urtzi Barrenetxea, Carmelo Basoredo, Araceli Díaz de Lezana, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Irene Fernández, Irene Gil, Gorane Ibarra, Joxemari Iturralde, Ixaxio Lopez de Arana, Luma, Nerea Pikabea, Yurre Ugarte, Amaia Ugartemendia, Izaskun Zuntzunegi.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkarian argitaratutako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 37. www.ivap.euskadi.net

PERTSONAIA

Maidar Unda, borrokalari olinpikoa: “Den-dena ematera joango naiz Londresera”



Elektronika ikasketak egin zituen, baina gusturago sentitzen da ardiak zaintzen eta ringean borrokan. Bietarako gaitasun fisikoa behar da, baina garrantzitsuena burua kontrolatzea eta erabiltzen jakitea da. Otxandioko Oleta auzoan bizi da, 33 urte ditu eta txapelketa ugari irabazi ditu: hamar aldiz izan da Espainiako txapelkun eta brontzezko domina bana lortu zituen, iaz, Munduko Txapelketan eta Europakoan.

Nolatan hasi zinen borroka librea?

Otxandion ikasi nuen, eta bertan ez zegoen beste kirolirik. Parean tokatutakoa egin nuen. Aurrena sambo ikasi genuen eta gero borroka librea. Niri betidanik asko gustatu izan zait kirola. Hasieran, jolas bat besterik ez zen niretzat.

Artzaintzaren aldeko hautua egin zenuen...

Gurasoek jubilatu egin behar zuten. Eta hori galtzea pena zela iruditu zitzaidan. Orduan, artzaintzarekin jarraitzea erabaki nuen. Ahizpak eta nebak asko laguntzen didate nik ezin dudanean.

Zenbat orduz entrenatzen duzu?

Garaia arabera asko aldatzen da. Orain, laburragoak dira, eta gogorragoak. Egunean hiru orduz entrenatzen dut, goizean ordu eta erdi eta arratsaldean beste horrenbeste. Etxean daukatzak pisuak, baina teknikoak egitera Gasteizera joaten naiz. Nirekin borroka egingo duen norbait behar izaten dut horretarako. Nire entrenatzailea ere han egoten da.

Elikadura zehatz bat jarraitzen duzu?

Saiatzen naiz zaintzen. Datorren urtean zorrotzagoa izango da, Londreserako sailkapen-froga baitugu. Nola elikatu zaren, gero asko nabaritzen da muskulazioan. Ez da komeni koipea hartzea. Pisua bai, baina muskuluetan.

Psikologia erabiltzen duzu aurkariari aurre egiteko?

Entrenamenduetan sufritu egin behar duzu, gero txapelketa momentuan sufrimendua helitzen denean hobeto eramaten jakiteko. Beste teknika batzuk ere badaude: ezin zara burumakur sartu ringera... Aurkariak badaki ze taktika erabiltzen dituzun. Beraz, taktika-sorta bat prestatuta izan behar duzu beti, noizean behin aldatzeko.

Zer nolako laguntza izan da BAT Basque Team fundazioarena?

Nire kasuan oso garrantzitsua izan da babesba. Niri asko lagundu didate psikologikoki. Fun-

dazioan teknikari asko daude, erabat zure gainean, gomendioak ematen. Geuk ere izaten ditugu geure beheraldiak. Azken batean, kirolari bat ez da makina bat, pertsona bat da.

Ze oroitzen duzu Joko Olinpikoez?

Esperientzia paregabea izan zen. Publikoa oso desberdina. Giro aparta egon zen. Komunikabideek sekulako garrantzia eman zioten.

Eta ospetsu egin zara?

Goi mailara iritsi naizenez, errespetatua izatea lortu dut. Batez ere, irudia asko aldatzen da emaitzak ikusten hasten direnean. Badakit urte batzuetarako kontua izango dela. Baina batzuetan beharbada gehiegi da. Txapelketa bat hurbiltzen denean, entrenatzen ari bazara, dena planifikatu behar duzu, elkarrizketak barne. Ez dakit ezetz esaten eta gero larri ibiltzen naiz.

Borroka libretik bizi daiteke?

Ni orain bai, goi mailan nabielako. Emaitzek agintzen dute. Baina, bestela, ezin da. Gorpuzak mugatzen zaitu, ez adinak. Nik, gazteago nintzenean, lesio asko izan nituen, baina orain ondo nabil. Urte askoan jarraitu ahalko nuke, baina uste dut Londresekin konformatu naizela. Borroka librearekin zerikusia duen zerbaitetan aritu nahiko nuke gero, baina denbora hartu eta pentsatu egin nahi dut ze neurriko lotura nahi dudana.

Londres, esperantzari leiho bat?

Esperantza domina lortzea da. Horren bila joango naiz, den-dena ematera. Aurrekoan, lehen aldia izan zen, Beijing-en, eta bosgarren geratu nintzen. Sekulako pena hartu nuen hain gertu geratuta. Azkenean, egun bakar batean jokatzeko duzu lau urtetan eginko lana, eta egun horretan faktore askok eragin dezakete. Burua ondo prestatu behar duzu. Londres da nire hurrengo helmuga.

Nerea Pikabea
Kazetaria

Memoria (historikoa)

Gure antxoia ez da, nor eta nahi ere, azken lau-bost urteotan esaten jardun dugun bezain estimatua. “Kantauri itsasoko antxoia goxoa, beste itsasoetakoan aldean jateko ederra”, “hura bai, eta ez Mediterranioko edo nork daki nongo hau” eta horrelakoak eginez bost urtean jardun ondoren, agertu zaigu berriro, eta, arrantzaleek kupo barruan ibili behar duten arren, moilan duen prezioa ez da, ez da!

Mutil koxkorrak edo neska koxkorrak ginela, kontserba-fabrikak udaberrian antxoia hartzen zutenean, zortzi urtetik gorako neska-mutil asko joaten zen antxoari burua kentzera; eskolak erdi hutsik edo ia hutsik egoten ziren egunetan, oso ikasle gutxirekin. Zenbat antxoia sartzen zen moilan, eta zenbat hartzen zuten fabrikek eta bodegek..., asko hartzen bazuten, egun osoan jarduten zuten lanean neska-mutilek; gutxiago hartzen bazuten, ordu batzuetan. Hala zen antxoia sasoi amaitu arte, gutxi gorabehera ekainaren erdi aldera arte.

Jo dezagun mutiko haietako batek Kleto zuela izena, Keleto esaten geniola batzuek, eta Kele esaten ziotela bere adinekoek. Keleren ondoan, neska nagusiagoa, antxoia-lanetan hura ere; eman dezagun Maria del Socorro zela, Xokorrito, alkandora mahuka zabal eta motzekoa zuela, eta, nolako mugimendua egiten zuen, batzuetan galtzarbe edo besapeko ileak ikusten zizkiola Kelek.

–Zer daukan hor? Labezomorroa? –12-13 urteko Keletok.

–Galdetuiok amari zer daukan berak! –16-17 urteko Xokorritok.

Aldamenekoek entzun eta kontatu egin zuten, grazia egin zien-eta. Eta andre batek, kontu hori entzunda, berari ere egin zion grazia disimulatu ezinik, baina maiseatu egin behar ba eta, gaitzespenezko irribarrez esan zuen –neu ere han nintzen-eta–: “Nolakoa den Xokorrito hori!” Neska ahogorri samarra zela, alegia.



Txitak more kolorez margotuta igande arratsalde batean ikusi nituen lehenengoz gure herriko baserri bateko ataurrean pio-

pioka. Gaitzen baten kontrako tinta omen zen. Baserriak beste izen bat duen arren, *Allalle* esaten diogu –ez *Aiaie*–; hori *allagiletik* datorkiola esan zidan aitona hangoa zuen gizon batek, sasoi batean baserri hartan *allak* egiten omen zituzten-eta. *Alla* uztaia dela, ez burdinazkoa, baizik eta gaztain adarrez egindakoa; barrikaren bueltan jartzen ziren, sendogarri, barrika leher ez zedin. Txitak, bada. Zenbat urte izango nituen orduan nik, 7-8? Artean ez nuen sekula ikusi ilea tindatutako andrerik; geroago entzun genuen Zarautzen andre bat ikusi zutela hala, eta nik ikusi nuen aurrenekoak morez zuen burua.

Harrezkero, urteetan, bada ba!, buru tindatuak ikusten nitue-
nean, dza!, ia beti *Allalleko* txitak gogora. Aurrena emakumezkoak izan ziren; ez gaitzaren kontra horratik. Aspaldiko urte hauetan gizonetzkoak ere ugari. Koloreak, berriz, denetarikoa. Eta zer! Eta zer?

(Ileak direla-eta, Irunen, autobusean, gizon batek beste bati esan zion “...halako zerean ile guztiak zorrotz jarri zitzaizkidan”, eta besteak galdetu zion: “denak?” Orduan ere han nintzen).



Memoria historikoa edo ez, neurean horrelako gauza asko ditut. Eskolakoak ere piloak: Viriatorenak-eta (ez zen Biriaturkoa, *pastor lusitano* baizik, urrunekoa, artzain latz askoa!), don Pelayorenak-eta (asturiar batek, Kininek, kirrikan zegonetan askotan esaten zidan: “Don Pelayo yera vasco; leyéralo yo en un libro”), Los Reyes Católicos-enak-eta... Asko. Ahaztu ere egiten dira eskolan ikasiak eta, ba...

Ez nazala alzhemerrak jo, ez nuke nahi. Ez nuke nahi, beste gauza guztiak ahaztu eta, nire memoria historikoan, *Allalleko* txitak pio-pioka sentitzea tindatutako buru bat ikusitako bakoitzean.

Kaxildo Alkorta
Laguna

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN-BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com





Mundua on line

RSS jarioak

RSS jarioak fitxategi-formatuak dira. Ingeleseko sigla horiek *Really Simple Syndication* edo *Rich Site Summary* esan nahi dute, eta, gaur egun oso erabilgarriak webguneen eta blogen irakurketa erosoagoa egiteko. RSS jario hauek kudeatzen dituzten aplikazioak erabiltzea (jario-irakurleak izenekoak) ezinbestekoa da hainbat blog irakurtzera ohituta dagoen Interneteko erabiltzailearentzat.

RSS iturriak, bestela esanda, webguneetan eta batez ere blogetan argitaratzen den informazioa hedatzeko era estandarra dira. Horrela, RSS jarioak edukiz gero, webgune edo blog batek argitaratutako informazioa eta artikulua beste aplikazio eta webgune batetik irakurri ahal izateko aukera ahalbidetzen da, jatorrizko guneetara jo gabe.

RSS jarioak irakurtzeko eta kudeatzeko aplikazioak erabiltuta, Interneteko erabiltzaile batek izena eman dezake bertan, eta gustuko dituen blogak edo RSSak dituzten webguneak gehitu. Era berean, RSS iturriak karpeta edo etiketara sailka ditzake. Horrela, erabiltzailea ez da blog edo webgune bakoitzean sartu behar informazio berria dagoen ala ez ikusteko eta informazio hori irakurri ahal izateko, baizik eta RSS jarioak kudeatzeko aplikazioak berak esango dio blog bakoitzean zenbat artikulua berri dituen irakurri gabe.

Webgune edo blog batek RSS jarioak dituenan, webgunearen lekuren batean ikur berezi bat erakutsiko du: puntu bat eta bi uhin, gehienetan laranja kolorekoa. Edo RSS izeneko esteka edukiko du nonbait.



Normalean nabigatzaileek ere jakinarazten dute, era batean edo bestean, erabiltzailea ikusten ari den webguneak RSS iturriak dituela. Mozilla Firefox edo Microsoft Internet Explorer programek aukera hori eskaintzen dute, besteak beste.

Ikurrean klik eginez gero, webguneak dituen RSS iturriak azalduko dira, eta, batean klikatuta, iturriaren helbidea kargatuko da. Ondoren, RSS iturriak irakurtzeko erabiltzen den aplikazioan, aukera egongo da jario berri bat gehitzeko, eta hor itsatsi beharko dugu lehen kopiatutako helbidea, hau da, RSS jarioaren URL helbidea.

Jario-irakurleei esker, nahi beste blogetako eduki laburtua eskuratu daiteke sistema eragilearen mahaigainean, posta elektronikoko aplikazioetan edo jario-irakurle bezala funtzionatzen duten aplikazioetan. Hortaz, ez da beharrezkoa web nabigatzailea ireki eta webgune guztiak banaka bisitatzea. RSS jario-irakurle batzuk hauek dira: Google Reader, Bloglines, MyYahoo, Netvibes, eta abar.

Luis Elizondo
luis@hegoa.info

U dan mingaina astindu nahi duten mintzalagunentzako egonaldiak baserrietan Topagunea Euskara Elkarleen Federazioaren eta EHNEren eskutik

Hiru mila lagunek hartzen dute parte Euskal Herri osoko 60 herri eta eskualdetan martxan dauden Mintzapraktika programetan. Programa hauek aisialdia, gozamena eta euskara uztartzen dituzte, eta, hiru elementuok kontuan hartuta, udan ere mingaina astindu nahi duten mintzalagunentzako aukera berri bat landu dute elkarlanean Topagunea Euskara Elkarleen Federazioak eta EHNE Euskal Herriko Nekazarrien Elkarreak.

Hala, uda honetan euskara praktikatu nahi duten mintzalagun edo berbalagunek, Bizkaian (Busturialdean eta Mungialdean) dauden 17 baserrietan izango dute horretarako aukera. Baserriarrek giro euskalduneari murgildu eta euskaraz bizitzeko aukera eskainiko dute, baserriko laguntzaren truke.

Euskara praktikatzeaz gain, baserri giroa ezagutzeko aukera bikaina. Hain zuzen ere, programa hasi aurretik, EHNEk formazio saio bat eskainiko die parte-hartzaileei.

Proiektuan parte hartu edo informazio gehiago nahi dutentzat deitu 948132693 telefonora edo idatzi mintzapraktika@topagunea.org helbidera.

Iñaki Arregi Ihartza euskaltzalea hil da

Iñaki Arregi Ihartza (Ermua, 1953), Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) koordinatzailea ekainaren 8an zendu zen. Mankomunitatea sortu zen une beretik (1988) bete zuen koordinatzaile lana; ondo baino hobeto ezagutzen zituen UEMAREN helburuak eta espiritua eta halaxe transmititzen zuen. UEMAREN arima izan zen sorreratik. UEMAN baino lehen EKBn aritu zen lanean Arregi.

Kataluniako Generalitatearen hizkuntza irizpideak sare sozialetarako

Kataluniako Generalitateak bi liburu hauek argitaratu ditu: *Manual de redacció i estil de l'oficina Virtual de Tràmits (OVT)* eta *Guia d'usos i estil a les xarxes socials de la Generalitat de Catalunya*. Eskuliburuak intraneterako jarraitu beharreko hainbat irizpide eta erregela eskaintzen ditu. Gidaliburuak, berriz, Generalitateko markak, zerbitzuek eta sailek jarraitu beharreko jarraibide komun batzuk ematen ditu, modu koherente eta homogeneoan joko dezaten.

Gida katalanez, gaztelerez eta ingelesez argitaratu da. Dagoeneko, eskuliburu honek nazioarteko erreferentzia lortu du. Lan hau irekia eta dinamikoa izateko jaio da eta *genet bloc* osatzen duten kolaboratzaileen ekarpenaz osatua dago. Ekarpene horien guztien artean sare bakoitzean (blogak, Twitter, Facebook, LinkedIn, Youtube, Flickr, Shideshare eta Delicious) eraginkortasunez komunikatzeko estilo-jarraibideak eta jarduerari irizpide egokiak eskaintzen ditu gidak; beti ere honako balioak kontuan hartuta: zerbitzu publikoa, gardentasuna, kalitatea, ezagutza irekia eta parte-hartzea.

Azken aldian, elebitasun pasiboa eztabaidagai izan da euskararen normalizazioari buruzko hainbat forotan. Kontzeptuari buruzko ikuspegi osatua izateko asmoarekin, *Administrazioa euskaraz* aldizkariak ekarpen bana eskatu die egile biri.

Lehenengoa Estibaliz Amorrortu dugu, Deustuko unibertsitateko irakasle eta, besteak beste, *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* liburuaren egilea; bigarren testua Joxe Manuel Odriozolak prestatu du, idazlea (*Euskalgintzaren lekukoak*, beste batzuen artean) eta Pasaiaiko Udal Euskaltegiko irakaslea.

Elebitasun pasiboa ere euskararako mesedegarri

Pertsona elebiduna definitzeko orduan ohikoak izan dira hurrengo azalpenak: hizkuntza bi jakin eta “maila berean” erabiltzen dakien pertsona; bigarren hizkuntza “lehen bezalaxe”, “jatorrizko hitzun elebkarrek dakiten bezala”, “natiboen erara”, darabilena. Definizio teoriko horietan elebiduna elebkar biren batura bezala aurkezten da. Baina nor da gai hizkuntza bi, “modu bere-berean”, bere erregistro guztietan, gaitasun komunikatibo osoarekin erabiltzeko?

Ezaugarri ideal horiek betetzen dituzten pertsonak aurkitzea oso zaila denez, haietaz jarduteko *elebidun orekatu* terminoa erabiltzen da, eta gainontzekoak elebidun orekatuak izan beharrean, *elebidun hartzaileak* edo *pasiboak* direla esaten da. Baina zertan datza elebitasun pasiboa? Lehen hizkuntzaz jabetu ostean, beste hizkuntza bateko trebezia pasiboak baino eskuratu ez dituen pertsona da elebidun hartzailea, hots, bere lehen hizkuntzaz *hiztun oso* dela ontzat emanda, bigarren hizkuntzaz irakurritakoa eta ahoz entzundakoa ulertzeko gai dena, baina idazteko eta berba egiteko zailtasun handiak dituena. Horiei lehen hizkuntza neurri handi baten galdu dutenak eta, haurtzaroz hizkuntza bi aldi berean edo ikasita, bat modu pasiboan baino eskuratu ez dutenak gehitu beharko genizkieke, elebidun hartzaileen multzoa osatzeko.

Halako hiztunak, elebidun hartzaileak hain zuzen, nahikoa gaitzetsita egon dira gure gizartean, bigarren hizkuntzaren eskurapenean porrotaren adierazle direla uste izan da eta. Helburua H2an (bigarren hizkuntzaz) *hiztun oso* egitea, natiboen erara erabiltzea izanda, zaila, ia ezinezkoa, da bigarren hizkuntzaren jabetza arrakastatsua izatea. Arestian esan bezala, lehen hizkuntzaz ere elebitasun pasibora heldu daiteke, baldin eta gero ikasitako hizkuntza erabileran nagusitzen bada, eta hiztun horiek ere ez dira ondo ikusita egon sarri askotan.

Euskararen testuingurura ekarriz, eta batzuen ustez, euskara galdu duten edo sekula nahikoa ikasi ez duten euskaldun zaharrak, “beti ikasten ari diren” euskaldun berriak, eta eskualde ia erabat elebkarretan bizi diren eta hezkuntza sistemaren bidez ikasten ari diren ume eta gazte elebidun hartzaileak “kalitatezko” maila jakin batera ailegatu ezik ez dira euskararako irabaziko.

Alabaina, euskaldun hartzaileak ere oso garrantzitsuak izan daitezke euskararen normalizaziorako eta aintzakotzat hartu

beharko lirarteke. Lehendabizi, osatzen duten kopuru handia ezin mesprezatu daiteke: elebidun hartzaileak Euskal Herriko biztanleriaren %15,4 dira eta EAEko biztanleriaren %18,3, IV. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (Eusko Jaurlaritza 2008). Horiek denak alboratuko ditugu euskaldun oso egin arte? Euskaldun hartzaile kategorian euskara gaitasun-maila ezberdinak egon daudela onartuta ere, jakina da horietako asko sekula ez direla euskaldun *oso* izango. Eta horiek denak bertan behera utziko ditugu? Ez ditugu euskarara erakarriko? Ez ditugu baliatuko euskararen erabilera areagotzeko?

Bestalde, elebidun pasiboek haien aurrean ere euskaraz egitea ahalbidetzen dute, beti “denok dakigun hizkuntzara” jo behar izatea saihestuz. Euskara moduko hizkuntza gutxitu batentzat oso onuragarria da hitz egiteko gai ez direnak ulertzeko behintzat gai izatea. Bestela, euskaraz ez dakien norbait beti dagoenez, hizkuntza gutxitua eta haren hiztunak beti suertatzen dira kaltetu.

Modu horretara, familia eta lagunarte mistoek hizkuntza biak erabili ditzakete etxean eta kalean, kode-alternantziak baliatuz, erabat erdarara jo ordez. Edo beste modu batera esanda, elkarriketa berean hizkuntza bi erabili daitezke: bata euskara eta besteak erdara; edota hiztun biek hizkuntza biak, neurri ezberdinean bada ere. Hizkuntzak nahasteko beldur eta arbuioa apur bat apalduta, elebidunek elebidun hartzaileen aurrean euskaraz egin ahal izango dute eta elebidun hartzaileek gero eta gehiago erabiliko dute euskara, ez erabat, gramatika aldetik diskurtso erabat perfektua ekoitiz, baizik eta ahal dutena euskaraz esanez eta ez dakitena erdaraz eginez eta berriro euskarara joz.

Horrekin guztiarekin ez da ondorioztatu behar kode alternantzia egoera guztietan egokia ezta desiragarria denik ere. Bat-bateko harreman lagunartekoetarako mesedegarria dena egoera formaletara ez litzateke orokortu beharko eta, gainera, gogoan izan behar da praktika hori egiterakoan helburua elebidun hartzaileak euskarara ekartzeta eta elebidunoi euskaraz egiteko aukerak zabaltzea litzatekeela, eta ez gizarte osora eta egoera guztietara zabaltzea.

Estibaliz Amorrortu
Deustuko Unibertsitatea

Elebitasun pasiboaren ajeak

Egunero hamaika bat aldiz gertatzen den egoera komunikatiboa da honakoa: alde batetik, euskaraz hitz egin nahi duen euskal hiztuna eta, beste aldetik, euskaraz ulertu bai, hobeto edo okerrago ulertu bai, baina euskaraz hitz egiten ez duena. Zeri deitzen diogu elebitasun pasiboaren egoera komunikatiboa? Bada, ñabardurak ñabardura, aurreko egoera komunikatibo horretan hiztun bakoitzak bere hizkuntzan jarduteari. Alegia, euskaldunak berean eta euskaraz ulertzen duen erdaldunak bere erdaraz. Teorian inork ez du inor hizkuntza aldatzera behartzen.

Beraz, erdal hiztunak gaitasun pasiboa dauka euskaraz. Badaki euskaldunak esaten dizkion gauzak ulertzeko adina, nahiz eta euskaraz hitz egiteko gai ez izan. Ulertu egiten du: horra zeri zor zaion gaitasun pasiboaren izendapena. Ele bitan ari dira, nor berean, inor inoren mendeko bihurtu gabe, hizkuntza eskubiderik urratu gabe. Hori guztia teorian gerta omen daiteke. Eta praktikan ere gertatu, gertatzen da noiz edo noiz: nik neuk praktikatzen dut neure koinatu batekin. Bera hobeto moldatzen da erdaraz, eta erdaraz mintzo zait; ni hobeto moldatzen naiz euskaraz, eta euskaraz mintzo natzaio.

Elebitasun pasiboaren aplikazioa, ordea, ez da batere sinplea. Euskaraz ulertzeko ulermen-maila asko daude, eta euskaldun berri asko ez dira gai aurrez aurre daukan euskaldunaren esanak ulertzeko. Zerbait ulertuko dio, agian gehiena, baina hala ere hainbat eta hainbat xehetasun eta zehaztasun galduko ditu bidean. Eta esanahiaren galera hori ez da hil hala biziko kontua izango testuinguru ez-formaletan ari denean, ni neure koinatuarekin ari naizenean bezala, baina beste hainbat komunikazio-esparru formaletan, dituen ondorioak dituelako, ezinezkoa da. Euskaldunoi behin baino gehiagotan gertatu zaigun egoera baita ulermen txarraren ondorioz nahigaberen bat edukitzea mintzaide genuenak gure esanak gaizki ulertzeagatik.

Beraz, asertibitateak ez du miraririk egiten komunikazioaren eskakizunak zorrotzak direnean. Ez da aski solaskidearen borondate ona gu erdaraz hitz egitera ez behartzeko. Komunikazioaren jarduna, hizketa, ekintza soziala da definizioz, eta giza eta gizarte bizitzaren aurrealdintza: hitzaren jardunik gabe ez dago bizitza sozialik, ez dago gizarte-funtzionamendurik. Hori eta horrenbestez, hizkuntzaren egitekoa gauza garrantzitsuegia da nolana planteatu eta ebazteko: bizitza soziala ahalbideratzen duen oinarritzko baldintza dugu hizkuntza, eta hizkuntzari esker burutzen ditugu gizarte ekintzak oro.

Horiek horrela, elebitasun pasiboaren erabilerak aje gehiegi ditu komunikazioan oinarritzen den bizitza sozialaren eskakizunak betetzeko. Eguneroko ogia eta egunkaria erosteko balio diezaguke, eta antzeko hartu-emanak burutzeko ere bai, baina


muga handiegiak ditu gurean. Hizkuntzen arteko distantziak ere ez digu laguntzen euskaldunoi, ahaidetasunik gabekoak baitira bateko euskara eta besteko bi erdarak. Nolanahi ere, diodan bide batez, hurbiltasun linguistikoaren auzi hori ez dakidala beti aldeko faktorea den: hizkuntza minorizatua devaluatzeko arrazoa ere izan baitaiteke hiztun hegemonikoaren aldetik. “Ia elkar ulertzeko moduko hizkuntzak baldin badira, zergatik ibili behar dugu komerietan hizkuntza kontu hauetan”. Horra hizkuntza hegemonikoaren hiztun hegemonikoari erraz asko burura dakiokkeen aurreiritzi linguistikoa.

Nondik datoz elebidun pasiboaren edo hartzailearen ajeak? Zergatik ezin ditu aurrez aurre daukan euskaldunaren hainbat eta hainbat mezu, esanahi eta ñabardura ulertu? Ulermenaren gakoak zergatik ezin dira atera eta bakandu hiztunaren gaitasun komunikatibo orokorraren erreperitotik? Egia ote da, edo zenbateraino da egia honako uste hau: “Ez du euskaraz egiten, baina dena ulertzen du”. Dena ulertu, baina gaitasun aktiborik ez. Horra, miraria. Zeren eta, ulermena bera ere ez baita izatez gaitasun pasiboa, gaitasun aktiboa baino. Euskaraz datozkion input guztiak edo gehienak ulertzeko, euskararen corpus zabalaz egagutu beharko luke, eta hori, jakina, ez da modu pasiboan lortzen den trebetasuna. Ez dezagun beraz ulermena gaitasun pasibotzat jo, hizkuntza bat ulertzea ez delako jardun komunikatibo aktiborik gabe eskuratzen.

Gaur egun aho batez onartuta dagoen iritzi hau zurkaiztu nahi nuke: “Hizkuntza erabiltzen den neurrian bakarrik ikasten da, erabilera da hizkuntz gaitasun komunikatiboaren neurri eta muga”. Bestalde, ez dago erabilera aktiborik gabeko hizkuntz gaitasunik, ustezko ikasketa akademiko teorikorik. Gramatika-gaitasuna bera ere erabileraren poderioz lortzen da, hizkuntzari berriazko teoria-gogoetak salbuetsita. Beraz, euskaraz ulertuko bada, euskararen erabilera ezinbesteko premisa dugu. Ez dago erabilerarik inplikatzeko ez duen ustezko ulermen-maila gramatikalik eta teorikorik.

Hori eta horrenbestez, izatez ezinezkoa da ulermen-maila pasibo askirik edukitzea hizkuntza batean, hizkuntza horren erabilera aktiborik gauzatu ez baldin bada. Ulermena bera ere, aurreratu dugun moduan, gaitasun aktiboa delako izatez, eta erabileraren poderioz eskuratutakoa. Ondorio honek azken galderara garamatza zuzen-zuzen: elebitasun pasiboak betetzen ote du oinarritzko baldintzarik oinarritzko komunikazio-erreperitotia behar bezala mamitzeko? Ez dirudi.

Joxe Manuel Odriozola
Euskara irakaslea



Autorretratu.

Alberto Schommer:

“Argazkigintzan hirugarren begi bat da jokoan: begirada”

Alberto Schommerren (Gasteiz, 1928) ahotsa sakona da, eta pausatua, adin handikoarena. Haren ahotsaren ezaugarriak areagotzenago ditu egongelako sabai gorak, behe zurezkoak. Argazkilariren diskurtsoa, eta isiltasuna, behin eta berriz txirrinak galarazia. Ez dugu aitaren argazkilarian lanbidea aipatu. Ez dugu Schommer den otso bakartia jorratu. Ez dugu behin halako Elgoibarren egin zuen erakusketa hizpidera ekarri. Ezta kamera txikia erabiltzeko zuen asmoa haizatu ere... Ez. Gidoian horiek denak izan arren, hurrengo baterako gorde ditugu galdera txikiok, argazkilariren kezkei igarrita: argazki ona benetako artelan egiteko zailtasuna, lantegi gaitza kalitate handieneko obrak eginak dituen Schommer artista zailduarentzat ere.

Estimatzen dizut elkarrizketa. Badakit egitekoak dituzuna...

Hartuko ez zintudan, bada! Gasteiztik etorria! Eta, gainera, hizkuntza zaharrari arnasa ematera etorria... hori oso gauza inportantea da, gero! Txikitan, Gasteizen, ez genuen batere euskararik entzuten. Ezta hitz bat ere. Atera kontuak: gure ama, plazara joaten zelarik arrainetara, adibidez, zera esaten zigun: “Euskaldunarenera noa!”. Han bazen euskaldun bat. Ikaragarria zen. Gaur egun zeharo bestela da, jakina.

Zeharo bestela euskara Gasteizen gaur egun, zeharo bestela argazkia bera ere munduan. “Aro digitala” aipatu ohi da hitzean eta hortzean, nahiz eta zu bestelako bide batean ari zaren, kaskografian.


Ni betiko bidean ari naiz, argazkigintza klasikoan: betiko negatibo, diapositiba eta kamera antigoalekoekin lanean; zeren eta beste bide batetik jotzeak ez zidan-eta onik ekarriko. Bestalde, argazkia digitalizatu egiten denez handitzean, ez dut nire bideari eutsita ezer galtzen eta bai, aldiz, irabaz-

ten. Ez buru ez buztan luke nik orain argazkigintza digitale-ra jotzeak.

Hitz egin dezagun argazkigintza bolumentrikoaz...

Laborategian gertatu zen halabehar hutsaren ondorio izan zen. Jabetu nintzenez, bolumenak edertasuna erants ziezaiokeen argazkiari. Argazki zimurtu bat izan zen abiapuntu; Antoni Tapiasena, hain zuzen. Hala ere, aski denbora iragan zen hura benetan lantzen hasi baino lehen, absurdua iruditzen baitzitzaidan kontu hura. Izan ere, argazkia, hain gauza laua, perfektua, orbangabea... marratuta egotea, bada, hori antiargazkia da. Hala-xe hartu nuen nik ere, argazkiaren kontraktzat. Baina hilabete zenbait iragan eta, halakoren batean, zera pentsatu nuen: “Zer-

gatik izan behar dik antiargazkia? Dena aldatzen duk! Aldatu beharra zeukaat-eta! Eskultura egin nahi diat!” Beti izan dut eskulturarekiko interesa. Beti maite izan dut. Pintore izana naiz, baina ez eskultore. Eta, garai hartan, han non ari nintzen eskulturaren inguruan gogoetan. Eta bolumenak egiten hasi nintzen. Eta kaskografia izena eman nion. (Camilo



Jose) Celak esaten zidan ez zitzaiola izena gustatzen, baina nik uste dut horixe dela hitz zuzena: kaskografia, *graphosa* harrotzea, alegia (Gaztelaniazko *cascaretik*). Eta azalera lauetan bolumenak lantzen hasi nintzen... Ondotik, tamaina handiko azalera landu nituen, baina argazki ezberdinak baliatuz eta elkari itsatsiz, irudi bat osoa sortuz. Horretan ari nintzela, behin, Jose Hierroekin nengoela, haren buru batere ilerik gabekoari begiratu eta... Orain esango nuke amildegira jauzi egin nuela. “Argazkiak egiten hasiko nauk, aurretik, atzetik, alboetatik... eta batu egingo ditai gero!” Eta Jose Hierro berari azaldu nion asmoa. Liluraturik zegoen, zeharo gizon irekia baitzen, berrikuntza oro maite zuena. Argazkigintza bera garrantzizkoa iruditzen zitzaion, eta zinez lan interesgarria. Beraz, argazkiak egin nizekion eta, ondoren, hainbat aste eman nituen Jose Hierroren burua izango zena lantzen. Ikusgarria izan zen emaitza!

Bilboko erakusketan ikusi dugu Hierroren buru hori aurtent bertan...

Argazkilari bariatua naiz, ez dut lan-ildo bakarra. Erretratua, bodegoiak, paisaiak... denetarik egin dut, eta nire lanen artean ageri dira “Erretratu psikologikoak” izenekoak ere. Joandako ura, garai batean egindako lana, baina Francoren kontra egindako lana zenez, antifrankismo huts-hutsa, nik erretratu politikotzat eduki dut beti. Horrela iritzi zion Bilboko Arte Eder Museoko zuzendari Javier Viarrek ere, eta berak eskatuta erakutsi nituen erretratuok, Alejandro Castelloteran laguntzaz. Argazkigintzan egin den erakusketarik ederrenetakoa, zalantzarik gabe.

Besteren argazki erakusketak ikustera joateko ohi-turarik baduzu?

Ez nago galeriak eta erakusketak ikustera joateko aldarrean. Nahikoa eta gehiegi dut andrearen gaixotasunarekin eta neure argazkiekin. Akabo, bada! Nola hasiko naiz, bada, orain, inoren argazkigintza aztertzen! Badakit argazkilari asko dagoena, eta gehienak onak direna... Izan ere, argazkia, ona ez bada, zerrikeria da. Berdin pintura; ona ez bada, zerrikeria da. Argazkiak ona izan behar du. Pinturak ona izan behar du. Eskultura, oro har –eta salbuespenak salbuespen–, nahiz eta lantzeko aukera handiagoak izan, ez da behar bezain ona.

Behar bezain ona ez, eskultura.

Ez. Eskultura on bat aurkitzen lanak ohi dituzu.

Pintore izan zinen, eskulturaz ari zara, argazkilari zara. Hiru arte dituzu, ala bat bera?

Hiru! Ez dute bata bestearekin zerikusirik. Zeharo dira ezberdin. Eskultoreak nekez pintatu ohi du. Pintoreak errazago egingo du eskultura. Argazkilariak ez du pintura ez eskultura egingo.

Oker handia litzateke. Nire kasua salbuespen da, eta, hala ere, ez dut buztin, burdin edo bestelako materialik baliatzen eskulturak egiteko, argazkia bera baliatzen dut nik! Ez diot ereduari muzin egiten. Ereduari jarraitzen natzaio.

“Argazkia, ona ez bada, zerrikeria da”...

Argazkilari asko daude teknika berriak erabiltzen dituztenak. Eta teknika berriok oso ondo lantzen ez badira, hotza eta izotza da emaitza, ez du sentsualtasunik... Badut lagun bat, argazkilari, lore erakusketa egin berri duena; argazki digitalizatuak. Ikaragarri txarra! Testuak egin dizkiot, baina gorriak eta beltzak ikusi ditut idazten. Erakusketa *polita* zen... Behin, (Joan) Mirok esan zidan gaztelaniak edertasuna azaltzeko zeukan hitz egokiena “polit” zela: “Polita da, horratik!”. Mirok nahiago zuen “polit”, eman dezagun, “zoragarri, aparteko” baino. Nire lagunaren zera hori “polita” zen, baina ez Miroren erako polita, batere gusturik ez duen baten neurriko “polita” baizik. Argazkilariaren erakusketa hark ez zuen *edertasunik*, ez zuen sakontasunik.

Zer esan nahi duzu?

Esan nahi dut argazkilari hura ona izan arren, argazkigintza digitala egiten hasi denetik ez dela asmatzen ari. Eta noiz edo noiz esan beharko diot. Argazkilari asko dira bazterretan, argazkigintza digitala egitea oso delako erraza. Hamaika botatzen dituzu zaborretara. Eta egiteko manera ere hain da erraza! Izango ez dira, bada, argazkilariak bazterretan! Seguru nago erakusketa handi batera joan eta bietarik ikusiko genukeela, argazkia primeran digitalizatutakoa egiten duten asko, eta beste asko argazkigintza klasikoa, betikoa, egiten dutenak. Nik esango nuke talentua dela inportanteena, talentua, ez argazkigintza digitala.

Talentua, edertasuna, sakontasuna... zuk erabili dituzun hitzak. Non ikasten da hori?

Berezkoa behar du. Jaiotzatik ekarri behar, fetuan. Barnean darrazazu. Ez Oxfordera, ez Cambridgera... alferrik joango zara unibertsitatera edo argazki eskola prestigio handiko batera. Sormenaren zentzua barnean ez badaramazu, alferrik ariko zara bila kanpoan. Artelana horixe baita, sormena. Eta dena ere ez da artelan. Norberak egindako lanen artean, batzuk baizik ez dira artelan; artelana perfektzioa da-eta. Jo dezagun, inoizko artelanik perfektuenak Errenazimendukoak ditugu; ez inpresionistak, ez abstraktuak, ez besterik. Migel Anjelek, esaterako, artelanak egiten zituen. Hura perfektzioa zen, zailtasunaren handia! Hor datza gakoa, ez gauza errazak egiten, ez, zailtasun handia egiten baizik, perfektzioan. Hori da munduan denik eta zoragarriena! Argazkigintzan, ber gauza! Zailtasuna handiena delarik ere, lan perfektua egiten duzunean, artelana duzu hori. Bilboko erakusketaren karietara, hura ireki eta egunetara, hitzaldia egin genuen




Castellotek eta biok. Berak galderak egiten zizkidan, nik erantzuten. Apaltasunari buruz ari ginen une batean, esan nuen ni ez naizela sobera apala, aitor dut, baina, era berean, aitor dut nire obran badela zenbait artelan. Dena ez dut artelan, zalantzarik gabe. Zenbait lan onak dira. Eta ez da gutxi... Nola esaten da “bueno” euskaraz?

Ona.

Bada, “ona”. “Ona” esateak, lanak ongi funtzionatzen duela esan nahi du. Hala ere, “ona”z gainera, artelana dugu, hots, onen artean perfekzioa. Hori oso gauza bakana da. Norbera egiten ari den lanaz jabetzen denean, haren *edertasunaz*, haren zailtasunaren handiaz... diozu: “Hau artelana duk!”.

Zure lan bolometrikoak, adibidez. Eman dezagun artelan ditugula, haietarik zenbait, bederen. Halabeharrendaren ondorio dira...

Hala iritzi diet, bai, halabeharrendaren ondorio. Haren ondorio dira artelanetarik asko, eta ez arte munduan bakarrik. (Alexander) Calder, esate baterako, zintzilikarioak egiten hasi zenean –ergel-



keria hutsa irudi luke, zentzugabeko lana, oinarri batzuen laguntzaz sabaian ezer esekitzea eta pieza osoa biraraztea–, bada, ziur naiz hura egitea bururatu zitzaionean, “Ez, hau ez duk ezer!” esan ziola bere buruari. Aldiz, benetan egin zuenean, behin eta berriz eta askotan egin zuenean, eta eusten ziola ikusi zuenean, jabetu zen hura zer edo zer bazela. Eutsi. Eutsi ez da, besterik gabe, pisu bati eustea. Eutsi da zailtasun handi bati aurre egitea, hari eustea, hura *edertasun* bihurtzea. Konplikatu xamarra da esaten ari natzaizuna –korapilatsua, beharbada–, baina oso gai inportanteaz ari gara. Gainerakoan, argazkigintzaz hitz egiteko, emango dizkizut hamaika argazkilariren izenak, berdin esango dizute denek... Honenbestez, ez gara argazkiaren kalitateaz hitz egiten ari... *Edertasunari* buruz ari gara hizketan, elkarrizketak horretara ekarri gaituelako.

Argazkigintzaren teoriak ari zara...

Nolabait ere. *Edertasunaz* jardun dugu, eta *oreka* da beste osagarri inportante bat. *Oreka*. Zenbait hitz erabili ditugu eta, eus-

karara ekarrita, azpimarratu egin beharko liriateke, inportante dira-eta. *Oreka*, esan berri dut. *Orekak* erabakitzen du lan bat ona ala txarra den.

Oreka, zein eta zein elementuren artean?

Esan nahi duzunaren, esaten ari zarenaren eta egiten ari zaren horrek duen kalitate materialaren artean. Zuri-beltzean ari bagara lanean, delako lanean dauden bolumenen kalitatea... Ohiko argazkiaz ari naiz orain, ez kaskografiaz. Argazki klasikoan, edo kolorea edo zuri-beltza duzu, kalitate, bolumen eta forma jakinak, gutxi-asko orekatuak.

Kalitate hori laborategian lantzen da?

Ez da laborategian lantzen. Norberak kaptatzen du lan bat egite-rakoan, edo eraikitzen du... Horra beste hitz gako bat: *eraiki*. Adibidez, pintura eraiki egiten da: mihise lauaren gainean pintura jartzea da lana. Eskultura ere, eraiki egiten da. Aldiz, argazkia ez. Ez duzu ezer: egitekoa kamera bidez irudi bat kaptatzea da, dela negatiboan, dela diapositiba batean. Delako irudi horrek darama sormena bere baitan. Beste batzuetan, berriz eraikitzen jardun dut, nire azkeneko lanetan bezala, biluzgorriak eta loreak egin baititut. Bateko eta besteko negatibo eta diapositibak hartu, mahai gardenaren gainean jarri, eta orbanak egin dizkiet; ez dut ezer pintatu, orbandu, tanta batzuk ezarri, besterik ez. Horrela, biluzgorrien eta loreen bilduma osatu dut, zinez bilduma berria.


Irudia kaptatzea baldin bada egitekoa, nahitaezko da begirada. Begirada berariazko bat, esan nahi dut.

“Nahitaezko da begirada”, diozu... Begiratzea, izan ere, gauza guztiak bezala da: zuk begiratzen duzuna, zure begiek egiten duten lan hori... era jakin batean ikusten dute bizitza bera, noiz modu perfektuan, noiz inperfektuan, interesgarri ala hutsal... Egiatzki, argazkigintzan hirugarren begia da *begirada*. Hirugarren begi bat da jokoan, kamerarena! Kalean kamera gabe goazenean, ez dugu ikusten kamera daramagula goazenean ikusten duguna. Ez. Instintiboki, elementu berriak geureganatzen ditugu. Gela honetan bertan, nik hain ongi ezagutzen dudana egongela honetan, kamera banu, halako isla berezi bati jarriko nioke arreta eta, *begiradaren* bitartez, zeharo bestela jardungo nuke lanean. Bai, inportantea da *begirada*.

(...)

Pena dut euskaraz ez jakitea... Bihotzez estimatuko nizuke elkarrizketan zehar azaldu diren hitzak, “polit, edertasun, eraiki, begirada...” –elkarrizketaren harian berez etorri zaizkigun horiek eta hemendik bost minutura errepikatzen hasi eta zuzen esango ez nituzkeenak–, azpimarratzea. Elkarrizketa euskaraz argitaratzen den egunean hitz horiek azpimarra ditzazun nahiko nuke. Jar ezazu letra txikian: “Schommerrek eskatu dit, faborez, azpimarratzeko beraren ustez obra bat inportantea izan dadin beharrezko diren hitzak”. Hara hor beste hitz bat: *inportante*.

Miel A. Elustondo
Idazlea eta argazkilaria



Karaoke

Inguratuta nago: plasma, LCD edo dena delako telebista pantailez. Tamaina guztietako pantailek irudi bera emititzen dute ordea, sumendi islandiarraren erupzioa orain, errautsezko hodeiaren norabidea gero. Erosketa orga aurrean daukat eta jada bete dudala konturatzen naizen momentuan lurreratu dut garuna hipermerkatuan. Halere, ez dakit zein saltoki guneko hipermerkatuan nagoen.

Normalean etxetik egin ohi ditut erosketak Internet bidez, hilabeteko erosketa erraldoia bederen; gaur, ordea, sartu naiz bulegotik etxerako bidean dagoen saltoki gunean, erosi nahi baitiot oparia bizilagunari, Irmari, *Secretgirl* linjeria frankizian hain zuzen. Frankizia hura ez dago nire ohiko saltoki gunean, beraz ziurrenik desbideratu egin naiz eta beste gune hartan nago. Nire kokaleku fisikoa argituko didan erabateko datua *Secretgirl* denez, eta horra iristeko lehenago ordainketa kutxatik pasatu behar dudanez, eta kutxetan dauden hilerak sekulakoak direnez, pantailen eremuan aparkatuta nago.

Etxean, Irma ere TB albistegiari begira dago bere haurrak nire semearekin jolasten ari diren bitartean. Irmak eta biok elkarri laguntzen diogu: lanetik berandu banator, Irmak hartzen du nire semea eskolatik eta alderantziz, nik haren semeak hartzen ditut Irma ezin bada arduratu.

Oparia egin nahi diot Irmari hain justu laguntzen didan guztiagatik. Eta oparia eman nahi diot haren senarra Ekuadortik iritsi baino lehen, gaur gauean. Bueltan baitatorkio senarra sorterrian hilabete igaro ondoren. Errautsezko hodeiak ez badu eragozpenik jartzen, Irmak prestatu dio ongi-etorri berezia Maialen eta Carlos, 4 eta 7 urteko seme-alabekin batera. Abesten hasiko zaizkio erosi berri duten karaoke baten mikrofonoaz.

Entzun ahal izan ditugu guk hirurok –nire senarrak, gure semeak eta nik– egin dituzten probak karaokearekin astean zehar. Sartu dira haien ahotsak gure egongelan hain bero eta hain gogotsu, non gure isiltasuna azpimarratu baitute, non nire ezinegona jasanezina bihurtu baita. Noiztik ez daukat gogorik nire senarrari ezer abesteko, ongi-etorririk emateko, harekin lo egiteko? Endika gure semeak behartu nahi izan gaitu hirurok elkarrekin abestera, baina ez du lortu.

Endikaren bila Irmarenera heldu naizenean, hiru haurrek abestu dizkirate Pirritx eta Porrotxen abesti mordoak mikrofonoaz. Saltoki gune batetik ateratzen naizen guztietan erabateko sonanbulo sentitzen naizen moduan, abesti horiek buruko mina piztu besterik ez didate egin, Irma oso kontent azaldu bada ere oparia zela eta.

Haren opariak gain erosi ditut kulero berriak niretzat, tristezia apur batez erosi ere, nahiz eta aldi berean esperantzarako ate bat ireki nahian. Kulero sorta: gorriak, grisak eta txuriak.

Gaua luzea izan da, apenas egin dut lorik eta eguna are luzeagoa izango da, afaria baitut lankideekin. Banoa bulegora autobusez. Jantzita daramatzat kulero berri-gorriak, non zilarrizko letra distiratsuek dioten “Free yourself” (aska zaitetz).

Bulegari lanak beste ezertan pentsatzeko astirik uzten ez badit ere, han bertan, bai, bulegoan, jarraitu dut izaten saltoki guneko sonanbuloa. Alabaina, buruko pantailan irudi bakarra izan dut, deusezta ezina, *stop-eject-off* sakatu ondoren desagertu ez dena: ilunpetan eta ohean gaude senarra eta biok, bizkarrez bizkar, bata zein bestea begiak zabalik, mutu, harreman izoztua.

Irudiak izan du interferentziarik, jakina: Irmaren senarra heldu da eta abestirik samurrenak abestu dizkiote. Endikak eta oraindik nire senarra denak pizza bat afaldu dute telebistaren aurrean, bizilagunen abestiek bolumena igotzera behartu baditu ere.

Afalostean, lankideekin, lortzen ari naiz buruko irudia errauts bihurtzea. Karaoke taberna batean gaude. Ni ezezkotan nengoen arren, lankideak tematu dira eta amore eman dut. Gauza da guztiek abestu dutela. Nire txanda heldu da orain eta halabeharrez, egin egingo dut. Bihotzetik aterako zait, biriketatik, erraietatik, sumendiko labaren moduan; hasteko, *Biziraungo dut* (I will survive) abestia, eta gero, karaoke erreperitorio guztia. Hain ozenki abestuko dut, ezen nire etxetik entzungo baitute, ezen hipermerkatuko pantaila guztietan azalduko bainaiz.

Yurre Ugarte
Idazlea

Gramatika zalantza batzuk

Duela urtebete (65. alean) DUDANET zerbitzuaren berri ematen genizuen aldizkari honetan bertan. Asko izan dira, denbora tarte horretan gurera iritsitako galderak, eta guztiei erantzun egokia ematen saiatu gara. Bada, artikulu honetan galdera horietako batzuk bildu ditugu, gure ustez zuentzako interesagarriak izango direlakoan.

✓ **Esaldi honetan, hau da, *zein* partikula erabiltzen dugunean, zein da aditzaren komunztadura? singularra ala plurala, ala biak? esaldi honetan zuzena da aditz singularra?**

“Nire ustez gorputz osasuntsu bat izateko gorputzak zein adimenak maila ona izan behar du”.

Lehenik eta behin esan behar da Euskaltzaindiak ez duela auzi horri buruzko araurik eman.

Zein juntagailu *hautakaria* da; *ez emendiozkoa* (eta, ere...). Euskaltzaindiaren *EGLU IV (Euskal Gramatika: Lehen urratsak)* lanean irakur daitekeenez, juntagailu hautakariak “ez dute normalki batuketa baliorik eta, horrenbestez, normala da pentsatzea juntagailu hauen bidez juntatutako izen sintagmak, bakoitza bere aldetik singularrak badira, ez direla pluraltzat hartuko singularizat baino, aditz komunztadurari begira” (164. or.).

Lan berean aipatzen denez, zenbaitetan posible da komunztadura pluralean ere egitea.

Gauzak horrela, gure iritziz, aipatutako esaldia zuzena da.

Informazio gehiagorako:

EUSKALTZAINDIA, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak IV* (Juntagailuak): Euskaltzaindia (1994) 164-165 or.

http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/7630.pdf

✓ **Famili-transmisioa ala familia transmisioa esan behar da?**

Euskaltzaindiak honakoa adierazi zuen hitz elkartuei buruzko arauan:

“Bukaeran <ia> duten hitzak lehen osagai edo mugatzaile gisa dihardutenean, <a> hori kenduta nahiz kendu gabe erabili. (...)

Idazkerari dagokionez, amaierako <a> galtzen den bakoitzean, bereiz idatziko da hitz elkartu eta <a> gordetzen denean, aukuran izango da bereiz idaztea nahiz marratxoa erabiltzea: *kultur etxea, biologi azterketa, kultura(-)etxea, biologia(-)azterketa*”.

Beraz, zuk aipatutako kasuan:

Familia transmisioa	ONDO
Familia-transmisioa	ONDO
Famili transmisioa	ONDO
Famili-transmisioa	GAIZKI

Informazio gehiagorako:

Euskaltzaindiaren 25. araua “Hitz elkartuen osaera eta idazkera”

http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua_0025.pdf

✓ **Hogei minutu eta hamar segundotan/segundotan? Nola behar du? Herrian egindako lasterketa baten emaitzen berri ematen duen idatzian.**

Euskaltzaindiaren 110. arauan zehazten denez, hobetsi egiten da inesibo mugatu singularra erabiltzea prozesu edo gertaera baten iraupena adierazteko.

Horrela bada, batasunaren mesedetan, *hogei minutu eta hamar segundotan* egitura hobesten da; nahiz eta *hogei minutu eta hamar segundotan* okertzat ez hartu.

Bestalde, *Berria* egunkariak kiroltako denborak eta markak zifraz idazten ditu (estilo liburuan adierazten duen legez): puntuz bereizten ditu orduak, minutuak eta segundok; segundoen hamarrenak komaz markatzen ditu:

Iban Mayok 7.25.34,6 egin zuen.

Fizek marka berria ezarri zuen: 2.02.04

Informazio gehiagorako:

Euskaltzaindiaren 110. araua “Traupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzailedunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen”

http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua_0110.pdf

✓ **Zuen aldizkariaren 66. zenbakiko 11. orrialdean, Gramatika atalari eskaintakoan, baieztapen hau aurkitu dugu: “Juntagailuz elkarturiko esaldiak komaz harilkatzen dira (oroitaraztea komeni)”. Eta adibideen artean hauxe dakar: “Lan handia zuen, eta lagunak bazkaria prestatzen zion”.**

Alabaina, kontu asko agerikoa da *eta* juntagailuaren bidez loturiko esaldien artean komarik ez jartzeko joera zabal-zabala.

Goiko adibidean, bigarren esaldiak nolabaiteko ondoriotasuna daukanez, komaren beharra ikusten dugu geuk ere (nahiz nekez erabili ohi den); baina zer gertatzen da horrela ez denean? Adibidez: *Kepak 28 urte dauzka eta Gasteizen lan egiten du.*

Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki puntuazioari buruz, ez bada alor jakinen bati buruzko gomendio-saila (adibidez, hitz elkartuen idazkeraz). Beraz, ez dago ezer arauturik komaren erabileraz.

Horrela bada, estilo-liburuetara jo behar da irizpide bila. *IVAPeko estilo-liburuan*, hauxe daukagu zehaztuta:

“*Eta, edo...* juntagailuen bidez hitz soilak barik perpausak lotzen badira, jarri koma bi perpausen artean”.

Bestalde, Joxe Ramon Zubimendiren eta Pello Esnalen *Idazkera liburuan*, Mitxelenaren idazlanetako adibide argigarria aurki daiteke:

“Julio Urkijok bazekien jakintza-gaietan borondate **eta** asmo onak, onenak direla ere, ez direla aski, **eta** ez zitzaion iruditzen elkar zuri-katuz ezer aurrera daitekeenik”. [MEIG 28, 69. or.]

Ikus daitekeenez, lehen juntagailuak elkarren kideko izenak lotzen ditu (borondate & asmo onak) komarik gabe. Bigarren juntagailuak, berriz, perpausak lotzen ditu (bazekien...& ez zitzaion...) komaren bitartez.

Beraz, aipatutako esaldian bi perpaus lotzen direnez, koma erabiltzea proposatzen dugu:

“Kepak 28 urte dauzka, eta Gasteizen lan egiten du”.

Dena den, *Administrazioa euskaraz* aldizkariko artikulua egileak dioen bezala, “Norberak erabaki dezala nola igo edo jaits eskailera-maila horiek: banaka, binaka edo jauzika. Kontuz-kontuz egin, hala ere, labainkorak dira eta”.

Informazio gehiagorako:

ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello. *Idazkera-liburua*. Eusko Jaurlaritzak. (1993). 41. or.

IVAP. *IVAPeko estilo-liburua*. HAEE-IVAP. (2005). 55. or.

✓ **Hurrengo adibide honen esaldiak “Santurtziko Liburutegi Nagusiko zuzendariak jakinarazten du” eta jakinarazten duen hori zerrenda bat bada (aditza, gidoitxoak eta guzti), zerrenda horretan dauden aditzek konpletiboaren marka daramate?**

–Web orriko “liburu berrien buletina” eguneratu egin dela (ala da)

–Mahastietako liburutegian *Avatar* filma emango dela (ala da)

Eta horrelako beste hainbat esaldi. Guztieta jarri behar da marka? Batean ere ez?

Euskaltzaindiak ez du oraindik auzi horri buruzko araurik eman. Hortaz, ez gara ari zuzentasunaz, egokitasun-irizpideez baizik. Zentzu horretan, IVAPen oniritziarekin argitaratutako *Itzulpen estrategiak*. *Gaztelaniazko testu juridikoak eta administratiboak* lanean, honakoa irakur daiteke:

“Ahal dela, enumerazioko unitateak markarik gabe adieraztea hobetsi behar da, kontuan hartu behar da euskara hizkuntza aglutinantea eta pospositiboa dela, eta, ondorioz, astuna bihur daiteke-ela elementu bakoitzean kasu-marka errepikatzea. Erreferentziaren eta elementuen artean, seguruago eta borobilagoa da komuntadura egitea, baina interpretazio-arazorik ez bada, zilegi da ez egitea ere (...)”

Adierazpen hau **honako hauei** bidaliko zaie: Ban Ki-moon NBEko **idazkari nagusia**, Europar Batasuneko **presidentea**, Europako Legebiltzarreko **presidentea**, Espainiako Gobernuako **presidentea**...”.

Beraz, komunikagarritasunaren arabera, ez dugu derrigorrezko ikusten konpletiboaren kasu-marka jartzea zerrendako unitate guztietan.

Bestalde, jartzekotan, denetan jarri beharko litzateke *-(e)la* marka. Halakoetan, aspergarri edo astun gertatzen zaigunez irakurketa, gure gomendioa da hasierako esaldia aldatzea osteko zerrendako elementuak ahalik eta argien eman ahal izateko. Hona ideia bat:

Santurtziko Liburutegi Nagusiko zuzendariak honakoak jakinarazten ditu:

–Web orriko “liburu berrien buletina” eguneratzea.

–Mahastietako liburutegian *Avatar* filmaren emanaldia.

Informazio gehiagorako:

AGIRRE Berezibar, Jesus Maria. *Gaztelaniazko testu juridikoak eta administratiboak*. Oñati: IVAP, 2009 (100. or.)

✓ **Nola esan behar da: “XIX eta XX. mendeetan gertatu zen hori” ala “XIX. eta XX. mendeetan gertatu zen hori”?**

Euskaltzaindiaren oniritzia duen *Ortotipografia* lanean honakoa zehazten da:

“Ordinalaren *-garren* atzizkia aldiro eta beti adierazi beharko da (letraz nahiz puntuz) elkarren segidan datozen zenbaki bati baino gehiagori dagokienean.

Ikus 14. or.

Ikus 2. eta 3. atalak

Ikus 14.-19. or.

Ikus 14., 16. eta 19. or.

Araudiko bigarren, hirugarren, seigarren eta hamargarren atalak aztertuko dira.

XVII. eta XVIII. mendeetan gerra ugari izan zen Europan.”

Beraz, “XIX. eta XX. mendeetan gertatu zen hori” idatzi.

Informazio gehiagorako:

ZUBIMENDI, Joxe Ramon. *Ortotipografia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2004. (47. or.)

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dih/es_5490/adjuntos/estilo_liburua/ortotipografia.pdf

Administrazio Hizkeraren Atala

Xabier Amatria, Urtzi Barrenetxea, Irene Fernández, Amaia Ugartemendia, Izaskun Zuntzunegi

Nola kudeatu enplegu publikoa krisi garaian?

Krisi ekonomikoak kolokan jarri ditu munduko zenbait ekonomia-egitura. Europako herrialdeek, bereziki, arazo handiak dituzte Europar Batasunak eskatutako arauen barruan ibiltzeko. Arazo horietako bat defizit altua da. Krisiaren ondorioz herrialdeek neurrigabe gairitu dituzte muga horiek. Hori dela eta, defizita murrizteko hainbat neurri hartzen hasi dira gobernuak; horietako batek zuzenean eragiten dio enplegu publikoari, gizartearen zerbitzura dagoen langile kolektiboari. Enplegu publikoa krisi garaian nola kudeatu beharko litzatekeen hausnartzeko eskatu diogu hainbat adituri.



Juan Carlos Ramos,
Eusko Jaurlaritzaren
Funtzio Publikoko
Sailburuordea:

“Antolakuntza azterketa zorrotz batekin berregokitu beharko litzateke”

Zer egin beharko litzateke enplegu publikoarekin krisi garaian?

Epe motzera, antolakuntza berregokitu egin beharko litzateke bere egoera naturalenera, eta horretarako, jardute eta ohi-tura txarrak kendu behar dira, baita utzikeriak eta botere banaketak ere. Antolakuntza azterketa zorrotz batez berregokitu beharko litzateke. Krisia aukera bat da.

Enplegu publikoa egokitu beharko litzateke? Nola?

Bai. Puztuta edo gaizki kudeatuta dauden jardueretan enplegua murriztu beharko litzateke. Baina ulertu behar da krisi garaian eskari soziala handiagoa dela, eta beraz, ez litzatekeela zentzugabea izango administrazioko atal batzuetan igoe-ra koituntal bat egitea. Hori nola egin? Bada, azterketa zorrotza egin beharko litzateke, salbuespenak kontuan izan-go dituen, baina ez babesa. Komunikazioak eta parte-hartze eskaintzak ere handia izan beharko luke, baina kontuan hartuta neurri batzuk ezin direla adostuak izan.

Enpresa pribatuaren ereduak balio al du enplegu publikorako?

Alderdi nagusienetan ez. Kudeaketa teknika batzuek balio dezakete, pertsonen kudeaketa teknikak, adibidez; baina kontuan izan behar da Administrazioaren helburua zerbitzu publikoa dela, berdintasuna eta legea betetzea, ez irabazi asmoa. Administrazioak zerbitzuak eman behar ditu, nahiz eta errentagarriak ez izan. Horrek ez du esan nahi eraginkorra izateko baliabideen erabilera arrazionala egin behar ez denik.

Enplegu publikoaren kudeaketan eredu bakar bat aplikatu beharko litzateke?

Arduren antolaketan eta horiek kudeatzeko moduan, ereduak bakarra izan behar du, EBEPen jasotzen den bezala eta bere garapen legeen arabera. Lanpostu bakoitzari dagozkion zereginak betetzeko pertsonak kudeatu behar direnean, kasu horretan lanbideen irizpideetara egokitu behar dute.

Zein da enplegu publikoaren etorkizuna?

Enplegu publikoa delegatutako botere bat den heinean, zerbitzuak emateko ezinbestekoa da gizartearen auziak koordinatzea eta konpontzea. Horrek bere egiturak arrazionalizatzea eskatzen du, eta bere profesionaltasunari eta lan egonkortasunari buruzko hausnarketa. Baina langile publikoen lanaren duintasuna eta onarpena ere bai gizartearen aldetik.

Juan Torres,
Ekonomia Aplikatuko
Katedraduna Sevillako
Unibertsitatean:

“Krisitik ateratzeko enpleguaren sorreran jarri behar dira indarrak”



Zer egin beharko litzateke enplegu publikoarekin krisi garaian?

Planteamendua beste bat da: krisi garaian nola sortu egoera egoki bat enpleguak ez dezan gehiago okerrera egin. Kontrakoa egiten ari da. Enplegua soldata iturria da eta beraz, eskari gehien sortzen duena. Krisitik ateratzeko, indarrak enplegua sortzen eta horri eusten jarri behar dira. Soldata jaisteko, eta gastua eta eskaria murrizteko proposamen liberalak bide kaltegarritik doaz. Eskaria da enpresek aurrera ateratzeko behar dutena eta hori nagusiki soldata ona duen enpleguak dakar.

Enplegu publikoa egokitu egin beharko litzateke?

Sektore publikoaren eraginez, modu negatiboan ari da igo-tzen enplegu ezegonkorra. Onura pribatua bultzatzeko gastu publikoa murrizteak dakarren ondorioa da. Enplegu publikoa inbertsiotzat jo beharko litzateke, administrazio publiko ona kapital sozialaren ezinbesteko atala baita, eta hori faktore erabakigarria da progresurako eta enpresen onurarako. Horretarako, enplegu publikoak eraginkorra izan behar du, modernoa, berritzailea...

Enpresa pribatuaren ereduak balio du enplegu publikorako? Eredu bakar bat aplikatu beharko litzateke enplegu publikoaren kudeaketan edo lan bakoitzaren beharretara egokitu behar da?

Bi gauza desberdin dira. Enpresari burudunek eta berritzaileek, benetan lehiakorrek direnek, lan baldintza onetan hartuko dituzte langileak, eta hala, balioaren eta onuraren alde egin-

go dute. Enpresari txarrak, merkatu boterea dutenak, berriz, preziorik baxuenean kontratatzen saiatuko dira. Beraz, beharrezkoa da enpresa pribatuan estandar batzuk ezartzea, enpresari burudunak sustatuko dituen eta besteak zigortuko dituen. Sektore publikoan estandar horiek errazago ezar daitezke.

Zein da enplegu publikoaren etorkizuna?

Gaur egun indarrean dauden ideia neoliberalak nagusitzen badira, galduz joango da eta gero eta ezegonkorragoa izango da. Joera hori aldatzen bada, eta ohartzen bagara administrazio publikoak sortzen duen kapital soziala ezinbestekoa dela aberastasuna sortzeko, orduan, enplegu inteligentetagoa eta berri-zaileagoa duen administrazio publiko baterantz joango gara.



Xavier Roig, ingeniaria eta enpresarioa:

“Agintari gehienak ez daude ohituta merkatuaren arauen arabera lan egiten”

Duela gutxi kaleratu duzu katalanez idatzitako *La dictadura de la incompetencia* izeneko liburua gaztelaniaz. Funtzio publikoaz eta krisiaz hitz egiten duzu liburuan. Zergatik aztertu nahi izan duzu gai hori?

Bi gaiak uztartu nahi izan ditut. Estatu espainiarreko parlamentario gehienak langile publikoak dira. Nire ustez, horrelako politikariekin ezin da krisi ekonomikoa konpondu, ez baitaude ohituta merkatuaren arauen arabera lan egiten. Eremu pribatutik eta publikotik datozen parlamentarioen artean proportzionaltasuna egon behar da.

Zer egin beharko litzateke enplegu publikoarekin krisi garaian? Espainiako gobernuak hartu dituen neurriak egokiak iruditzen zaizkizu?

Egokiak dira, baina ez da nahikoa. Merkatua lan erreforma horren zain dago orain. Lanaren onurak denen artean banatzea litzateke logikoena. Batzuek urte asko daramatzate kontratu finakoarekin. Orduan, lanera sartzen diren berriak ezegonkortasun egoeran sartzen dira. Sindikatuen helburuak murriztu beharra dago.

Ze neurri har daitezke?

Gaizki neurtutako, kontrolik gabeko funtzio publikoa daukagu. Lan egiten ez duena zigortu eta lan egiten duena saritu beharko litzateke. Ez dadila pribilegiarik egon soilik batzuentzat. Arrazionalizatu beharra dago, funtzio publikoaren estatutu on bat egin beharra dago.

Nori interesatzen zaio enplegu publikoa sustatzea eta ze helbururekin?

Kataluniako Parlamentuan, esaterako, parlamentarien %68 funtzio publikotik dator. Jende horrek ez du sekula onartuko eurak gutxietsiko dituen legerik. Funtzio publikoa oso politizatuta dago.

Enpresa pribatuaren ereduak balio du enplegu publikorako?

Balioko luke. Udalek, adibidez, enpresa pribatuak bezala funtzionatu beharko lukete. Bidegabekeriak egongo liriateke, baina orain ere badaude: badago lan egiten ez duen jendea. Europako herrialde batzuetan modu horretan funtzionatzen ari dira jada.

Zein da enplegu publikoaren etorkizuna?

Pribatuan bezala izan beharko luke, produktibitate jakin bat izan beharko luke. Funtzio publikoak dituen pribilegioek desagertu egin behar dute.



Izaskun Garikano, ELA sindikatuko Gizalan, Zerbitzu Publikoetako Federazioko idazkari nagusia:

“Krisi garaian inoiz baino gehiago behar ditu gizarteak zerbitzu publiko onak”

Zer egin daiteke enplegu publikoarekin krisi garaian?

Krisiari aurre egiteko, enplegu publikoa handitu behar da. Defizita murriztea aitzakiaz hartuta, enplegu publikoa murriztu nahi da. Baina horrek gizarteak kaltetu eta ekonomia okertu besterik ez du egingo. Erakunde publikoek badituzte beste modu batzuk kontuak orekatzeko, fiskalitatea esaterako. Sektore eta enplegu publikoa oso garrantzitsua da gizarte justu batean, gehiengoaren beharrak asetzen dituzten zerbitzu publikoak sostengatzen baititu. Gizarteak kalitatezko zerbitzu publikoak behar ditu eta horretarako funtsezkoa da egonkortasuna eta lan baldintza onak bermatzea zerbitzu hori emango dutenei. Krisi garaian inoiz baino gehiago behar ditu gizarteak zerbitzu publiko onak. Gure ustez, gobernuak interes pribatuaren menpe jarri dira, eta zerbitzu publikoen pribatizazioarako asmoa argia da.

Egokitu egin beharko litzateke enplegu publikoa? Nola egokitu beharko litzateke?

Egokitu bai, baina handituz. Gizartearen beharrak zein diren ikusi eta horiei erantzun. Eta hori posible egiteko, diru sarrerak gehitu behar dira; gehien dutenek gehiago ordaindu behar dute, fiskalitatea moldatu behar da.

Enpresa pribatuaren ereduak balio du enplegu publikorako?

Hori diru publikoa, gu guztion dirua, irabazi pribatuetara bideratzeko modua besterik ez da. Hirugarren adinekoen egoitzak dira horren adibide garbia. Zerbitzu publikoa da, baina kudeaketa pribatuko. Administrazioetik asko jasotzen dute enpresek, irabazi handiak dituzte, baina lan baldintzak eta, ondorioz, zerbitzuak eskasak dira. Jokaldi bikaina enpresa pribatuarentzat, baina desastre bat gizartearentzat.

Zein da enplegu publikoaren etorkizuna?

Politikoen borondatean utziko bagenu, etorkizun beltza luke. Zapateroren neurriak, esaterako, enplegu publikoari eraso bortitza dira. Enplegu publikoa, zerbitzu publikoak eta gizartearen gehiengoaren bizi baldintzak daude jokoan.

**Nerea Pikabea
Kazetaria**

Adinekoak geldirik ez!

Zahartzea gertaera naturala da. Aurreiritzi asko daude gizartean zahartzaroari buruz; hori dela eta, batzuek tristuraz bizi dute eta hutsune handia sentitzen dute. Beste batzuek, aldiz, bizitzako azken etapaz gozatu egin nahi dute eta orain arte egin izan ez dituzten jarduerak egiteko aukera eskaintzen die adin horrek. Zahartzaroa baikortasunez aprobetxatu eta modu aktiboan bizitzen ari diren lau lagunen testigantzak jaso ditugu.



Agurtzane Imatz:

Bakioko Txoberna taberna darama azken hogeita lau urteetan. 65 urte ditu, hiru seme-alabaren ama da eta hiru urteko biloba bat ere badu. Bere zaletasunik handiena dantza egitea da.

Ez duzu erretiratzeko asmorik?

Oraindik ez. Ez dakit noiz arte segituko dudan. Urtetik urtera gehiago gustatzen zait. Gero eta jende gehiago ezagutzen duzu. Gazteekin oso ondo moldatzen naiz.

Baina gehien gustatzen zaizuna dantza egitea da...

Orain dela hamabost urte dantzan hasi nintzen. Hasieran Bakion bertan, eta gero, Bilboko eskola batera joaten hasi nintzen, aretoko dantzak egitera batez ere. Astelehenero, autoa hartu eta Arrigorriagara joaten naiz dantza egitera. Dantza gehiago egin beharko genuke Euskal Herrian, zeren musikaren bidez hartu-emanak gehiago lantzen dira.

Zer eman dizu dantzak?

Dena. Dantzak eta itsasoak dena eman didate. Itsasoa alboan izan behar dut. Urte osoan joaten naiz bainu bat hartzera, uda ala negua.

Zahartzarora iristen direnean batzuk hutsik sentitzen dira...

Norberak bere aldetik jarri behar du apur bat. Seme-alabak badituzu, badakizu ez direla beti zurekin egongo. Aurrera egin behar duzu eurak barik. Ezin zara hutsik eta bakarrik sentitu. Jendeak, erretiratu ondorenerako, beste gauza batzuk egiteko eduki beharko lituzke. Paseatzen joan eta kartetan jokatzera ondo dago, baina norberak gustuko zerbait egin behar du. Nik neure seme-alabekin harreman estua dut.

Ze zaletasun gehiago duzu?

Musika, irakurri, antzerkiera joan, bidaiatu... Gazteek ekaritzen dizkidaten CDak jartzen ditut tabernan. Jostea, moda... Duela hamabost urte, ile orrazkera erabat aldatzea erabaki nuen. Geroztik, kolore askotako ilea eraman dut. Eta batez ere, gorria da gehien atsegin dudana.

Momentua aprobetxatu behar dela uste duzu?

Inoiz ez dut pentsatu zahartzaroa nolakoa izango zen. Pasatu baino lehenago sufritzeak ez du merezi. Unea iristen denean, erabakiko dut zer egin. Neure bizimoduarekin pozik nago.



Itziar Aizpuru eta Mari Asun Pagola, aktoreak:

Itziar Aizpuru getariarra da eta 70 urte ditu. Mari Asun Pagola, berriz, arrasatearra da eta 60 urte egingo ditu aurten. Moriarti ekoiztetxearen 80 egunean filmeko aktore protagonistak dira. Adineko bi adiskidderen arteko harremana oinarri hartuta, homosexualitateaz ari da filma.

Zertan aritu zarete orain arte eta nola iritsi zarete film bat egitera?

Itziar: Ni 60 urterekin hasi nintzen telebistan, *Goenkalen*, eta berehala *Martin* telesailean. Aurrez, denda eduki nuen Getarian. Harrezkero, gelditu gabe ibili naiz. 20 urte nituela antzerki talde bat osatu genuen herrian bertan. Gero, umeak... laga egin nuen. Baina beti neukan hor har txiki bat. **Mari Asun:** Arrasateko kooperatiba bateko marketing sailean lan egin dut urte askoan, komunikazioan. Aurre jubilatze-ko aukera eduki nuen 58 urterekin. Arrasateko Doke antzerki taldean nabil 2005az geroztik. Moriartiko zuzendariak gurekin harremanetan jarri ziren, casting batera joateko. Ni aukeratu ninduten. Burutik pasatu ere ez film batean parte hartu behar nuenik. Historia oso ondo zuzenduta dago, eta gainera, askok ikus lezakete bere burua identifikatuta.

Zer suposatzen du zuentzako adin honekin maila honetan egotea?

Mari Asun: Nire esperientzia bakarra da eta oso ona izan da. Testua buruz ikasi eta gero hori antzezteko gai izatea oso pozgarria da. Sentitzen duzu oraindik ere eman dezakezula. Norberaren joerak ere asko esan nahi du: ni beti izan naiz oso baikorra.

Itziar: Helburua Hollywoodera joatea da! Adin honekin horrelako film bat egin izana opari bat da, sekula pentsatuko ez nuena.

Jubilatu zinetenetik, zereginik gabeko pertsona sentitu zarete?

Itziar: Ni beti martxan noa, ez naiz gelditu ere egiten, beti ilusio horrekin. Horrez gainera, Getariako eta Zarauzko parrokiako koruan kantatzen dut. Askok gustatzen zait kantatzea. Nik uste dut gure garaiko jendea ondo dagoela; zaharrek gaur egun jarduera asko dituzte. Dena den, badira pertsonak sekula gazteak izan ez direnak. Beharbada, gizonezkoek okerrago daramate.

Mari Asun: Ni jubilatu nintzenean, ezta burutik pasa ere jubilatu behar nuenik. Ingelesa menperatu, antzerkian jarrai-

tu, orain dela ez dakit zenbat denbora ikasten hasitako trikitixa soinuari heldu berriro... Azkenean, denborarik ez asmoa nuen dena egiteko.

Zahartzaroaren beldur zarete?

Itziar: Ez. Ni ondo sentitzen naiz. Koadrilan gehienak gazteagoak dira eta ez zait iruditzen ni baino gazteagoak direnik. Lana daukagun bitartean eta horrelako gauzak egiten ari garen bitartean, ondo ibiliko gara.

Mari Asun: Orain hasi gara bizitzen. Orain arte, beste batzuk izan dira gure bizitza antolatu dutenak. Orain daukagu denbora geuretzat, askatasun osoz nahi duguna egiteko. Ezin zara zuloan sartu. Atera egin behar da eta gozatu gelditzen zaiguna.



Maria Jesus Atxalandabaso, mendigoizalea:

Istripu bat izan ondoren, 53 urterekin hasi zen mendira joaten. Marimendi emakume helduz osatutako mendizale taldearekin joaten da gehienetan. Munduko tontorrik altuenak zapaldu ditu gernikar honek 69 urterekin. Lau seme eta bost biloba ditu.

Ze menditan izan zara?

Lehen irteera Mont Blancera izan zen, 2006an, Marimendirekin. Urte berean Kilimanjarora joan nintzen. 2007an Ararat mendia (5.000 metro inguru) Kurdistanen. Urte berean, Atacamako basamortuan izan nintzen, Txilen, eta hor Guayaquire (6.000 m.) zapaldu nuen. Igo dudan altuena da. 2008an Elbrus (Europako mendirik altuena) Kaukason. Iaz, trekking bat egin nuen Himalayan.

Ze mendi igoko duzu aurten?

Orain, uztailean, Peruko Mendikate Zurira goaz Marimendirekin. Hiru mendi egingo ditugu: Pisco (5.752), Ishina (5.530) eta Urus (5.495).

Ondo egokitu zara mendiko ezaugarrietara?

Prestaketak egiten ditugu ohitzen joateko, beti gidaren laguntzarekin. Hegazkinean ondo lo egiten dut, kanpin dendetan ere bai. 60 urte bete nituenean paraxutarekin bota nintzen.

Zer esanahi du adin horretan maila horretako gauzak egiteak?

Orain arte, familiaz arduratu naiz eta ez dut sufritu horrelakorik egin ez dudalako. Gustura egin dut, eta orain ere semeei edozertan laguntzeko prest nago. Baina, orain, asko baloratzen dut askatasuna. Orain arte, beste batzuei laguntzen aritu naiz. Orain, niretzat nire gustuko gauzak egiteko poztasun hori daukat barruan. Nik uste dut geuk ere eskubide hori badaukagula, aisialdia geure modura antolatzeke, errudun sentitu barik. Adin honetan norberak duen jarrerak asko esan nahi du.

Eduki duzu beldurrik adin honetara iristeko?

Ba, igual beldur pixka bat nion bakardadeari, baina niretzat opari bat da adin hau, espero ez nuena, oso polita. Ama bezala ere jubilatuta nago.

Astean zehar, mendiaz gain zer egiten duzu gehiago?

Euskaldun berria naiz eta astelehenetan Berbalagun izaten dut. Arratsaldeetan emakume talde bat elkartzen gara. Martitzenean, batzuetan ni bakarrik mendira, eta arratsaldez, psikologia tailerrera. Asteazkenetan, beti mendira, "eguraldi ona eginda ere". Barikuetan bakarrik geratzen naiz etxean. Ingelesa ikasten ere hasi naiz. Interneten ere ibiltzen naiz.



Maximo Garcia Lopez, EHUKo Esperientzia Geletako ikaslea:

Enpresa ikasketak egin zituen gaztetan eta bankuan lan egin du beti 60 urteko bilbotar honek. Derrigorrez aurre jubilatuta egin zuten eta geroztik ikasten ari da Euskal Herriko Unibertsitateko Esperientzia Geletan.

Nola izan zen aurre erretiroa?

Nik ez nuen nahi, gustura bainengoen lanean. Emazteak eta semeek euren bizimodua egina zuten. Pixka bat traumatikoa izan zen eta ez diot inori horrelakorik opa. Nik ez dut gustuko egunero eguneko zentro batera joan eta kartetan ibiltzea.

Zer ikasten duzue esperientzia geletan?

Denetik ikasten dugu: Artearen Historia, Historia Unibertsala, Psikologia, Politika, Ekonomia, etab. Oso interesgarria da.

Zuri zer ekarpen egin dizu?

Asko eman dit. Ezagutza eman dit, eta informazioa bilatzen eta aztertzen erakutsi didate. Gero, elkarbizitza handia dago kideen artean. Sozialki bere garrantzia dauka. Ez zara bakartuta geratzen. Orain, historiari buruzko tailer bat martxan jartzekotan gara. Pena ematen digu hau utzi beharrak. Nire semeak dioenez, lehen baino lan gehiago daukat. Gutxiago egoten naiz etxean.

Gizarterako probetxugarria izaten segitzen duzula uste duzu?

Bai, noski. Kontua da gizarterako ez gaitzat jotzen zaituztela. Adinekoei buruz ezagutza falta handia dago. Foru Aldundiarekin lanean ari gara orain, zahartze aktiboari buruzko araudia prestatu nahian. Nazio Batuen Erakundearen proposamena da. Lehenago, norbait jubilatzen zenean, eguneko zentrorra joan eta kartetan jokatu beste erremediorik ez zitzaion geratzen. Hori batzuentzat baliagarria izango da, baina niretzat ez. Eta horretarako baliabideak jar daitezten nahi dugu.

Baina batzuk jubilatzeke desiratzen egoten dira?

Beharbada lan fisikoa egiten ari direnak bai, baina oro har, hori gezurra da. Asko depresioan erortzen dira edo banandu egiten dira euren bikotearengandik. Egoera horiek saihestu egin nahi ditugu. Jendea ez dadila etxean sartuta geratu. Belaunaldi desberdinen arteko ekitaldiak egin beharko liriteke. Ni ondo nago, aktibo egotea gustatzen zait. Egunero joaten naiz gimnasiora.

Nerea Pikabea
Kazetaria

Azkenean



Lortu dut. Lortu dut azkenean. Hemen dago, nire eskuen irispenean, ohantzearen beste aldean. Nerabea nintzeneko amets bat gauzaturik ikusi dut, nerabearoa aspaldi atzean utzi arren. Baina orain ez nago ametsetan: ondoan daukat, biluzik, nire gurari guztiak asetzeko gertu. Badakit, ondo jakin ere, mugak oraingoan neuk jarriko ditudala, inork jartzekotan.

Gure oinek elkarri egindako kili-kiliek esnatu naute. Gau osoko amodiozko jardun eroak abailduta nauka oraindik. Badakit gu bion artekoaren oroitzapenak egun osoan kateatuta edukiko nauela. Baina orain lanera joan beharra daukat: herriak behar nau, beste funtzionario guztiak behar dituen bezala.

Urte asko joan dira, bai, baina oraindik ez du galdu bere begi beltzen distira. Areago, distira hori elkar ezagutu genuen egunekoa baino biziagoa duela esango nuke. Bere adats luzea ere ez da aldatu, beti bezain sarri, beti bezain harro. Sudur hura beti zut, eta, hainbat urte joanagatik, berean dirau, gora begira mehatxukor. Garai bateko gorpuzkera lerdana ere ez da alferrik galdu urteen poderioz. Azala ere ez zaio ihartu, uraza bezain fresko, uneoro dirdai. Hortzak ikas-kide ginen sasoi hartan bezain orbangabe.

Hogei, agian hogeita bi urte ziren ikusten ez nuela, baina atzo arratsaldean ikusi bezain laster ezagutu nuen: Margarita Agirre Bujanda, institutuan izan nuen amodioa, nire lehen amodioa, nire lehen ametsa. Hura zen neska ederra! Hau da emakume ederra! Primaderako lilia baino are ederragoa!

Oraindik gogoan daukat amak egunero prestatzen zizkidan nozilla ogitartekoak zeinen gogoko zituen Margaritak. Gero aitortu zidanez, horrexegatik hasi zitzaidan hurreratzen, nozillak erakarrita nonbait. “Nocilla, mi meriendilla” esanda, ogitarteko puska eder bat hartu ohi zidan, nozilla-geruza harro-harro zuena, noski. Baina egun batean amak, aldatzea-gatik-edo, nozillaren orde txorizo pamplona sartu zidan ogitartekoan. Handik aurrera Margarita eta bion artekoak ez zuen onik izan. Nigandik gero eta urrunago sumatzen nuen, gero eta hotzago, gero eta mesfidatiago. Eta gertatu behar zuena gertatu zen azkenean: berandu baino lehen beste baten

beso artean aurkitu zuen abarora. Kasimiro, gure gelako liburu-jalerik handiena, egunero bollicaoa erosten hasi zen. A ze kabroia! Hori izan zen nire amets eta itxaropen guztien akabua. Nozillaren mundura itzuli nintzen arren, ordurako berandu zen nonbait: Kasimirok bere bollicaoez baliaturik erraz ostu zidan usoa. Egun haiek gogorrak izan ziren niretzat, baina garratzasunik gabe ekartzen ditut gogora, Margaritarekikoak aletzen ditudanero, gauero alegia.

Baina forentseok ez dugu sentimentalismorako zirrikitu bakar bat bera ere utzi behar. Azken batean, auzitegi-tako medikuak gara, funtzionarioak, eta gauzak ahalik eta ondoen eta zehatzen egiten saiatu behar dugu, ez besterik, gure lana oztopa dezakeen oro –iragan-mina eta bestelako bihotz-minak– alde batera utzirik. Orain Margarita gajoari odola atera behar diot eta gero, hatz-markak hartu. Gorpua ondo aztertu, txostenean ezer berezirik aipatu behar ote den ikusi, eta, azkenik, etiketa bat jarriko diot ezker oineko behatz lodian. A! Eta nozilla ere kendu behar diot, atzo geruza sendo batez igurtzi bainion gorputz osoa, gaueko amodiozko sugarretan kitzikagarria eta gure iraganaren berpizgarria izango zelakoan. Orain agur esateko ordua iritsi da eta aztarnaren bat uztea gure amodio debekatuaren salagarri besterik ez litzateke izango; jendeak ez luke ulertuko. Aspaldi batean hamaika buruhauste eragin zidan hura ardura eta maitasun osoz garbitutakoan gorputegiko hozkailura eramango dut bueltan, eta hori dena lehenbailehen egin beharra daukat gainera, inor haren hutsuneaz ohartu aurretik, eta hor zeharo atsekabeturik agur egingo diot, betiko agur, Margaritari, betiereko bitxilore zimelezin honi.

Inaxio Lopez de Arana
Idazlegai

Euskara nabarmentzeko bideak testu elebidunetan

Osasun arloko erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko lehen urrats sendoa 2005ean abian jarritako Osakidetzaren Euskara Plana da. Bertan zehazten da helburuetako bat dela “herritarrekiko harremanetan euskararen agerpena edo erabilera bermatzea”. Horren arabera, herritarrentzako dokumentuek, oro har, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testuak bildu behar dituzte. Testu elebidunetan ezaugarri grafikoei buruzko gomendioak jasotzen dituen Planaren 4.5. puntuak honela dio:

Euskarazko testuen ezaugarri grafikoei dagokienez, baliabide eta euskarri guztietan (errotulazioa, paperak, etab.) diseinuari lotutako arau hauek beteko dira:

- Hizkuntza ofizialetako testuak bertikaletara daudenean, gaztelaniazko testua euskarazkoaren azpian joango da. Adibidez:

Pazienteen eta erabiltzaileen eskubideak

Derechos de los pacientes y usuarios

- Hizkuntza ofizialetako testuak horizontaletara daudenean, gaztelaniazko testua euskarazkoaren eskuinetara joango da:

Pazienteen eta erabiltzaileen eskubideak	Derechos de los pacientes y usuarios
--	--------------------------------------

“Euskarazko testua nabarmenduta” egongo dela esanez jarraitzen du. Ematen diren adibideak aintzakotzat hartuta, uler daiteke euskara nabarmentzeko bidea letra lodia erabiltzea dela. Eta izan, bada bidea, baina ez beti egokiena. EAeko Administrazioan IVAP da testuen diseinua gehien landu duen erakundea, eta IVAPek emandako erduei jarraitu diete, neurri batean edo bestean, gainerako erakundeek dokumentu elebidunak sortu behar izan dituztenean. *Galdezka* (2003, IVAP) liburuko “Nola diseinatu testu elebidunak” atala, besteak beste, tipografiaz ari da eta honako hau da letra lodiaren erabileraren gainean egiten duen gogoeta:

Letra lodia, neurritz erabilia, oso aproposa da zer edo zer azpimarratu edo indartzeko; neurririk gabe, berriz, nekatu egiten du, eta ez du testu luzeetarako balio.

Eta hori bera dio gure eskarmentuak ere. Donostia Ospitaleko komunikazio unitatea errotulazioaz eta dokumentu estandarren diseinuaz arduratzen da. Errotulaziorako, oso testu laburretarako alegia, letra lodia egokia izan daiteke, hurrengo adibidean ikusten den moduan:



Horrelako errotulu baten aurrean irakurlea lehenengo dagoen eta erakargarrien egiten zaion testutik hasiko da irakurtzen, eta elebiduna bada, horri eutsiko dio informazio osoa jaso arte. Alegia, euskaraz dakienak euskaraz irakurriko du errotulua. Zein da, ordea, irakurle horren beraren joera testu luze baten aurrean? Proba dezagun:

Ingurumeneko kutsadurak askotan amigdalak kendu zaizkion edo beste prozesu batzuk dituzten pazienteen faringea ukitzen du, baita ere, berrogeita hamar urtetik aurrera egarri-sentsazioa txikiagotuta dagoelako.

La faringe se afecta con frecuencia por la polución ambiental en pacientes amigdalectomizados y pacientes con otros procesos y por el descenso de la sensación de sed al pasar de los cincuenta.

Gure proben emaitzak bat datoz IVAPek dioenarekin. Letra lodiak astunagoak dira, bistarako nekagarriagoak eta, ondorioz, mantsotu egiten du irakurketa; horretaz gain, letra lodiak leku gehiago hartzen du eta testuari luzeagoaren itxura ematen dio, nahiz eta hori berez egia ez den. Hori horrela izanik, irakurleak begiratu batean jasoko du bi testuetako zein den nekezena eta zein arinena eta, bigarrena izanda ere, gaztelaniazkoari ekingo dio euskaraz dakien arren. Irakurleak baztertu egingo du, guk, deigarriagoa egiteko asmoz, irakurgaitzagoa bihurtu dugun testua. Eta izan bada, bestalde, letra lodia tentuz erabiltzeko beste arrazoi bat: testu osoa lodiz idaztean, testu barruko hitz edo hitz multzo bat nabarmentzeko baliabidea baliogabetzen ari gara.

Adibideak aztertuta, beraz, ondorioztatu dugu euskara nabarmentzeko Osakidetzaren Euskara Planak proposatutako gomendioa, hau da, letra lodia erabiltzea, egokia dela bakarrik oso testu laburretarako. Testu luzeetan letra lodiak testua orbandu egiten du nabarmen, irakurgarritasunaren kaltetan; horrelakoetan, euskaraz zein gaztelaniaz, letra zuzena da egokiena. Testuaren kokapenarekin batera, letraren tamaina handitzea izan liteke euskara lehenesteko bidea; baina, hori beste baterako utziko dugu.

Irene Gil

Donostia Ospitaleko Komunikazio Unitatea

Paper gutxi kontsumitzen duen herri-administrazioa helburu

Herri-administrazioa eta, horren harira, bulegoko edo administrazioko jardueretako sektore guztia produkzio-sistema batekin konparatuko bagenitu, konturatuko ginatke papera lehengai nagusia dela halako jardueretan. Papera asko erabiltzen da, eta hainbat gauzatarako: agirietan, inprimakietan, argitalpenetan eta abarretan.

Papera kontsumitzeak eragiten duen arazoa da ingurumenari kalte egiten diola, bi fasetan: papera egiteko erabiltzen diren zuntz zelulosikoak biltzen direnean, eta zuntz horiek paper bihurtzen direnean. Basogintzako ustiategietan, lurra ahitu egiten da askotan, eta bioaniztasuna kaltetu. Paper-fabrikek ur eta energia asko kontsumitzen dute; horrez gain, atmosferara botatzen dituzten isuriak eta eragiten dituzten hondakinurak oso kutsakorrek izaten dira.

Hori dela-eta, Euskadin, paperaren sektoreak gero eta joera handiagoa dauka lehengai ziurtatuak erabiltzeko. Horrek zera esan nahi du: baso-sailak behin eta berriz berritzen direla, eta basoak ere behar bezala lantzen direla, lurra ahalik eta gutxien kaltetzeko moduan.

Bestalde, gaur egun, paperaren industriak gero eta ahalmen handiagoa dauka erabilitako papera birziklatzeko (%60 ere birziklatzen du gaur egun), kontsumitzaileak erabilitako papera birziklatzen duen hein berean (berriz erabiltzeko modukoak diren paper-zatiak, jakina, paperaren erabilera batzuek ez baitute aukerarik ematen birziklatzeko). Prozesuak berak ere asko ari dira hobetzen; ur gutxiago kontsumi-

tzen dute, eta isuriak eta emisioak arazten dira. Hori dela eta, esan daiteke Euskadiko paper-industriak ondo bete dituela IPPC Legearen eskakizunak nahiz Ingurumen Baimen Integratuarenak. Nahiz eta papera egiteko energia asko behar izan, erabili behar den energia horren bereizgarriak direla-eta aukera dago instalazio askotan efizientzia handiko kogenerazioak jartzeko; horretarako, prozesuak berotzeko gas naturala erretzeaz gain, gasaren hainbateko bat argindarra sortzeko erabiltzen da. Gainera, papera egiteko erabil ezin diren zuhaitz-zatiak eta azala edo egurra egostean sortzen den likore beltza ere argindarra sortzeko erabiltzen dira.

Administrazio publikoan, kontsumoa eta erostea ingurumenari kalterik ez egiteko modukoak izango badira, honako honek izan behar du estrategia:


- ▶ Ingurumena errespetatzen duten lehengaiak eta ekoizpen-prozesuak erabiliz egindako papera erostea.
- ▶ Apurka-apurka gero eta paper gutxiago kontsumitzea (eta ez bakarrik bulegoetan), harik eta paper gutxien kontsumituz funtzionatzen ikasi arte.

Baina, zergatik gutxitu paperaren kontsumoa?

Mundu osoko datuak aztertzen hasita, ikusiko dugu, normalean behintzat, zenbat eta garatuago egon herrialdea ekonomikoki eta sozialki, orduan eta gehiago kontsumitzen dela papera. (Ikusi 1. grafikoa)

Alabaina, puntu batetik aurrera, paper asko kontsumitzeak ez du adierazten dena delako herrialdea oso garatua denik, baizik eta baliabideak itxura gabe xahutzen dituela.


1. grafikoa. Paperaren eta kartoiaren kontsumoa munduko herrialde batzuetan (2005)



Iturria: <http://earthtrends.wri.org/>

Azken urteetan, herri-administrazioen lan-arloa izugarri informatizatu da. Bazirudien, gizartea hainbeste digitalizatuta, papera erabiltzeari utziko geniola denok; alabaina, kontrakoa gertatu da. Halaxe adierazi du Espainiako Papergintza Elkarteak (ASPAPEL) egindako txostenak. Paperaren kontsumoak munduan zer-nolako bilakaera izan duen eta zer joera daukan azterzen du txostenak, bai eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek zer-nolako eragina izan duten sektorean ere:

2. grafikoa. Paperaren kontsumoa eta informazioaren teknologia berriak munduan



Iturria: ASPAPEL.

Egoera horretan sortu zen “paperik ez” helburura iritsi beharra, eta herri-administrazioak –eredu emateko– eta gizarteko gainetarako sektoreek kontsumo arduratsua eta jasangarria egin beharra, paperaren kontsumoa gutxitzea lortu arte.

Honakoak dira jarraitu beharreko ildoak, paper gutxiago erabiltza, informazioa lehen bezain ondo maneiatzeko abilezia hobetzeko: politikariek konpromiso irmoa hartzea, papera erabiltzeko eta kontsumitzeko premiak definitzea, lantokian bertan zenbait ekintza konkretu finkatzea.

Nola bete dezakegu “paperik ez” helburua?

Prozesu guztietan bezalaxe, pausoz pauso joan behar dugu. Eguneroko lanean, bulegoko dokumentuak inprimatzean erabiltzen da batik bat papera. Hortaz, jabetzeko kanpainak eta jokaera onak bultzatu behar dira langileen artean, lan-ohitura jakin batzuk hartu eta paper gutxiago gastatzeko, honela: alde bakarrean idatzitako orriak berriz erabiliz; informatika ekipo egokiak erosi eta ondo konfiguraturaz –aukera emateko, adibidez, besterik gabe beti bi aldeetan edo bi orri orrialde batean–. Hainbat atazarako balio duten teknologiek, gainera, informazio-fluxuak zentralizatzen modua ematen dute; esate baterako, faxak zuzenean euskari elektronikoan bidali eta jasotzeko aukera ematen dute, inprimatzen ibili beharrik gabe.

Jokabide egokia izan daiteke, halaber, argitalpen elektronikoak erabiltzen hastea zenbait komunikaziotarako; esate baterako, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofiziala paperean argitaratzeari utzi, eta Interneten atari bat sortu dute, nahi duen orok aldizkaria bertan kontsultatzeko. Urtean 38 tona paper gutxiago kontsumitzea ekarri du neurri horrek.

Ildo beretik, aukera ona izan da ekitaldien berri zabaltzeko eta izena emateko gestioa Internet bidez egiten hastea: gonbidape-

nak, programak eta izena emateko agiriak ez dira inprimatuta bidali behar; are gehiago, dena delako ekitaldi horretako materiala bera ere inprimatu beharra saihesten da, web-orrian deskargatzeko moduan jarrita.

Honetaz ari garela, e-administrazioa (administrazio elektronikoa) nabarmendu beharrekoa da, abantaila sozio-ekonomiko eta ingurumenekoak ematen baititu; administrazioko izapideak azkar egiten direlako, burokrazia soildu egiten delako, lana zorrotzago egiten delako, eta, jakina, paperezko dokumentu gutxiago erabiltzen direlako.

Horren adibide da 2003tik hona Eusko Jaurlaritzak kontratazio elektronikoaren alde egin duen apustua. Kontratazio-espediten teek ingurumenari eragiten dioten kaltea txikitzea lortu dute, eta behar bezala funtzionatzeko beharrezko erreminta guztiak dauzkan intranet plataforma bat sortu dute.

Horrez gain, bestelako ekintzak ere egin dituzte administrazioek; adibidez, hala eskatzen denean soilik inprimatzea (ale jakin batzuk bakarrik inprimatzea, horretarako eskaera jaso ondoren, ale-kopurua doi-doi izateko) eta dokumentuak fitxategi elektronikoetan artxibatzea.

Hala eta guztiz ere, e-administrazioko sistemak apurka-apurka abian jartzeko, lan handia dago oraindik egiteko, bai horren berri ematen, bai kanpoko nahiz barrukoei aholkua eta prestakuntza ematen ere. Horregatik, helburu hori gogoan hartuta, papera erostean eta kudeatzean ingurumenaren mesederako irizpideak aplikatuta jokatu behar dugu beti, administrazioek egindako kaltea ahalik eta gehien murrizteko.

Nola arin dezakegu kontsumoa oraindik kendu ez dugun paperaren kasuan?

Papera hornitzen duten administrazioko langileek nahikoa eza-gutza eta informazio eduki behar dute, ingurumenaren aldetik onenak diren produktuak aukeratzeko (ekoetiketa ofizialak zein diren, zein fabrikatzailek daukaten ziurtagiria, baldintza-pleguetan zer ingurumen-irizpide sartu behar diren, eta abar). Horren harira, oso erabilgarria da Eusko Jaurlaritzak –Ihobe sozietate publikoaren bidez– argitaratu duen eskuliburu¹; asko laguntzen du bai papera erosterakoan kontuan hartu beharreko bereizgarriak zein diren argitzen, bai kontsumo arrazionala egiteko ideiak biltzen.

Eta azkenik, baina ez gutxienik, ez dugu ahaztu behar administrazioak gogor egin behar duela papera hondakin bihurtzean beste ezerekin nahastu gabe biltzeko, gaika biltzeko, alegia; hartara, birziklatu ondoren, sistemara bueltatzeko. Horrela, paperaren zirkloa itxiko dugu: kontsumoa gutxitzen hasi, eta behar-beharrezkoa den papera soilik erosi arte; betiere, ingurumena kontuan hartuta eta, hondakin bihurtzean, aparte bilduta birziklatu ahal izateko.

Gorane Ibarra

**Ekoizpen eta Kontsumo Jasangarriaren Saila - IHOBE
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantza Saila**

¹ Kontratazioari eta Erosketa Publiko Berdearen Eskuliburu Praktikoak. Jokabide onak 3. Lurralde Historikoko aldizkari ofiziala euskari elektronikoan. http://www.ihobe.net/documentos/MCCPV/BP3_cast.pdf

Oinarrizko softwarea: euskaraz erabiltzen duzu?

Egun, ez dago aitzakiarik zure ordenagailuko oinarrizko softwarea euskaraz ez erabiltzeko, oso modu errazean eskura baitezakezu. Artikuluxka honen bidez, euskarazko softwarea erabiltzera eta kontsumitzera animatu nahi zaitut, izan ere, arlo honetan ere euskarak erabiltzaile aktiboak behar ditu. Poliki-poliki ohiturak aldatu, beldurrak alboratu eta normaltasunez erabili behar ditugu euskarazko software-produktuak.

Zer den oinarrizko softwarea? Batetik, sistema eragilea, eta, bestetik, bulegotika- edo ofimatika-paketea. Bi horiei Interneteko nabigatzailea gehitu behar zaie.

Sistema eragileari dagokionez, bi aukera dituzu:

- Windows: gaur egun gehien erabiltzen den sistema eragilea da eta horren interfaze-paketea badago euskaraz erabilgarri. Microsoft enpresarena da eta Microsoftek berak, bere kasa, prestatzen du euskarazko interfaze-paketea, ingelesez LIP (Language Interface Pack) izena duena. Eskuragarri dugun azken bertsioa Windows 7 da eta, horren aurretik, Windows Vista eta Windows XP prestatu eta guztion eskura jarri zituen Microsoftek. Esan behar da euskarazko interfaze-paketeak gaztelaniazko bertsioen gainean instalatzen direla eta, Windows 7ren kasuan, frantseseko bertsioaren gainean ere instalatzen dela.
- Linux: software librekoa da eta hainbat banaketa mota du: Debian, Ubuntu, Mandrake, Red Hat... Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) EusLinux bertsioa prestatu zuen aspaldian eta, harrezkero, eguneratu –GNOME mahaigaina barne–, eta erabiltzaileen eskura jartzen du.

Bulegotika- edo ofimatika-paketeari dagokionez ere, bi aukera dituzu:

- Microsoft Office: zabalkunde handiko produktu honen euskarazko interfaze-paketea ere guztion eskura dugu. Microsoftek berak, bere kasa, prestatu eta zabaltzen du. Office 2003ren eta Office 2007ren interfaze-paketeak (LIPak) aspalditik daude erabilgarri eta, laster, Office 2010ena kaleratuko da. Officek honako hauek integratzen ditu: Word, Excel, Power Point eta Outlook.
- OpenOffice.org: software libreko produktua da eta Windows eta Linux plataformetan funtzionatzen du. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskarazko bertsioa prestatu zuen aspaldian eta, harrezkero, eguneratu eta erabiltzaileen eskura jartzen du. Momentu honetan, HPS OpenOffice.org 3.3 bertsioa prestatzen ari da (kaleratu orduko agian 3.4 izango da).

Nabigatzaileak direla eta, bi dituzu euskaraz:

- Microsoft Internet Explorer: Windowsen interfaze-paketearekin batera instalatzen da.
- Mozilla Firefox: software librekoa da eta sarean dago eskuragarri.

Bestalde, dakigunez, edozein hizkuntzatan idazten dugunean, hainbat hizkuntza-tresna gure sisteman integratuta izatea oso lagungarria dugu: **zuzentzaile ortografikoa** eta **hiztegiak**, elebidunak eta sinonimoenak. Bi tresna horiek, hau da zuzentzailea eta hiztegiak, Microsoft Officeren barruan daude eta hainbat hizkuntzatan erabil ditzakegu.

Euskaraz idazten dugunean ere, eskura ditugu, berdin-berdin, aipatutako tresnak, hau da, Xuxen zuzentzaile ortografikoa Microsoft Officeren barruan integratuta dago eta hiru hiztegiaren *pluginak* saretik deskarga ditzakegu eta bulegotika-paketean integratu; hauek dira hiztegiak: Elhuyar hiztegia es-eu / eu-es, Elhuyar hiztegia eu-fr / fr-eu, eta UZEIren sinonimoen hiztegia. Produktu horien bertsio desberdinak eskura ditugu eta instalatuta dugun softwarearen arabera aukeratu behar ditugu. Xuxen eta Elhuyar hiztegiaren kasuan, badaude OpenOffice.org-erako bertsioak ere.

Hori horrela, sar zaitez www.euskara.euskadi.net/euskara_soft helbidean eta bertan aurkituko dituzu aipatutako produktu gehienak. Produktu horiek zure ordenagailuan instalatzeko argibideak softwarearen ondoan dagoen eskuliburuan topatuko dituzu. Ikusiko duzu, instalazioa sinplea da eta azkar egingo duzu!

Azkenik, Interneten nabigatzen baduzu, nabigatzaileaz gain, bestelako produktu batzuk ere erabiltzen dituzu, zalantzarik gabe. Bada, jakin, honako produktu hauek ere euskaraz daudela eta, hortaz, aurrerantzean erabiltzen dituzunean euskaraz jar ditzakezula:

- Windows Live: Messenger, Hotmail...
- Google: bilatzailearen interfazea (euskarazko bilaketak nabarmenki hobetu dira) eta Gmail.

Beraz, esan bezala, ez dago aitzakiarik. Anima zaitez eta aldatu zure ordenagailuko produktuen hizkuntza; jarri euskaraz. Gainera, ona litzateke zure ingurukoei gauza bera egiten laguntzea. Informazioa zabalduz gero, euskarak erabiltzaileak irabaziko ditu. Estatistikek diote txikia dela oinarrizko softwarea euskaraz erabiltzen duten pertsonen kopurua. Ea denon artean datuak hobetzen ditugun, hori izango baita euskarazko software-produktuen zerranda handitzen joateko bidea!

Araceli Díaz de Lezana
Hizkuntza Plangintzako arduraduna
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Abilezia edo trebetasuna?

Izenburuan azaldutako aukera agian ez da ondo ulertzen, betidanik bi terminoak sinonimotzat hartu baititugu.

Horrexegatik hain zuzen, artikulua honetan, bi esanahi ezberdin hauek argitu beharra dago; hala adibide batzuk jarrita, nola psikologia kognitiboaren ikuspegi baten argudioak erabilia. Beraz, aipatutako hitz horiekin esanahi bana lotzen saiatuko gara. Alde batetik, bakoitzaren irismen eta ezaugarriak azalduko dira, eta beste aldetik, sailkapen berri bat proposatuko da, etengabeko prestakuntzan ikasteko programetan erabiltzeko.

1. Terminoak bereiztea

Aipatutako bi esanahiak bereizteko askotariko adibideak erabil daitezke:

- Abileziaz ari garenean, esan dezakegu “trebatu beharreko abilezia..., abilezia handia zerbait egiteko..., garatu beharreko abilezia...”. Askotan, kasu horretan “gaitasun” edo “maina” hitzak ere erabiltzen dira, adibidez: “ondo erakutsi du bere maina...”, “gaitasun eta eskarmentua...”, “hainbat gaitasun eta trebetasun lortzeko...”, eta abar.
- Bigarren esanahia, hau da, trebetasuna, hurrengo adibideotan erabiltzen da: “gizarte-trebetasuna..., ulertzeko trebetasuna..., antolatze trebetasuna...” eta antzekoak.

Izan ere, aurreko adibideetan bi maila desberdin daude: bata, abilezia, maila orokorrari dagokio; eta bestea, trebetasuna, maila konkretuari. Hala ere, erakutsitako hitz guztiak –eta sinonimo gehiago– maila batean zein bestean erabili ditugu.

Psikologia kognitiboaren ikuspegitik, bi mailak oso argiak dira: maila orokorrera nortasun-ezaugarriari dagokio; eta maila konkretuena, aldiz, prozesu kognitiboari. Gehienetan,

erraza egiten zaigu nortasun-ezaugarriak bereiztea; baina, ezin ditugu azaldu ezaugarri baten osagaiak eta, are gutxiago, osagai horien arteko erlazioak edo funtzionamendua. Halere, gaur oso ondo ezagutzen dugu trebetasun askoren garapen-prozesua. Prozesu horrek hiru fase orokor ditu: lehenengoa, kognitiboa; bigarrena, elkartzekoa; eta azkena, betearaztekoa. Horregatik, ezin ditugu nahastu bi erreferentzia horiek, eta komeni zaigu hitz ezberdinak erabiltzea maila bakoitza ezagutzeko.

Maila konkretuan, *trebetasun* hitza erabiltzea da artikulua honetako proposamena, eta testu gehienetan horrela egiten da. Edo, alderantziz, termino hau erabiltzen denean, prozesu kognitiboa urratsez urrats garatuta dagoela pentsatu behar dugu. Hori erabiltzen da, alegia, trebetasun teknikoaren jarraitbideetan; adibidez, edozein sakelako telefonorekin batera etortzen den liburuxka.

Benetan, ez dira bi maila bakarrik, hiru baizik. Honako hauek dira:

- Maila orokorrera ezaugarrien maila da, eta artikulua honetako ildoari jarraituta, gaitasunei dagokie.
- Maila konkretuena prozesu garatuen maila da; beraz, esan bezala, trebetasunen maila.
- Eta zeregin konkretu batzuk burutzeaz ari garenean, nahiz eta burutze-prozesuaren garapena ezagutu ez: abilezia, maina, jeinu eta abar erabil ditzakegu.



2. Saillkapena

Artikulu honetako bigarren helburua, bai abileziez, bai trebetasunez osatuta dagoen saillkapen berria lantzea da, aldez aurretik azaldutako bereizketak kontuan izanik. Saillkapen horrek oso garrantzi handia du lan-jardueran; batez ere, etengabeko prestakuntzako programen helburu espezifikoaren zailtasun ordena erabakitzeko orduan.

Lan jardueraren abileziak eta trebetasunak sailkatzeko honako lau irizpide hauek erabili behar ditugu:

- a) Abilezien edo trebetasunaren konplexutasun maila.
- b) Edukien izaera edo ezagutza eremuak.
- c) Abilezieki edo trebetasunek garatzen dituzten nortasun-ezaugarri motak.
- d) Abilezien edo trebetasunen prozeduraren normalizazio edo estandarizazioaren graduak.

Horrela, aurreko lau irizpideen arabera, honako hauek dira abilezien eta trebetasunen saillkapen motak:

- I. Trebetasun motorrak
- II. Oinarrizko abilezia kognitiboak
- III. Trebetasun teknikoak
- IV. Goi mailako abilezia kognitiboak
- V. Gizarte abileziak

Mota bakoitza zehaztuko da, eta beren ezaugarri nagusiak azalduko dira. Lau irizpideetatik eratorritako informazioaren arabera eta, izatekotan, azpisailkapenak ere bai.

I. Trebetasun motorrak

Edozein trebetasun motorren osagairik nabariena zentzumen-eta pertzepzio-sistemaren ekintza da, baita sistema eskeletiko eta gihar sistemarena ere. Trebetasun motorrek gaitasun fisikoak eta psikomotrizitatea garatzen dituzte: ukimen-trebetasuna, entzumen-trebetasuna, ikusmen-trebetasuna, eta abar.

II. Oinarrizko abilezia kognitiboak

Oinarrizko abilezia kognitiboak buruko ekintzak dira, edozein jokaerak behar dituen informazioaren prozesua eta irudikapenak gauzatzeko. Eta erabiltzen ditugu adimen gaitasunak garatzeko arlo jakin batean. Esaterako, euskarazko idazmena, mintzamina, ulermena, eta abar.

III. Trebetasun teknikoak

Trebetasun teknikoa zeregin zehatzak burutzeko ezagutza batek eratorritako prozedura ezaguna erabiltzea da. Horrelako ekintzak ordenan dauden operazioek osatutako jokaera-segida baten bidez egiten dira. Edozein trebetasun tekniko burutzeko, hastapenak, arauak, irizpideak eta ezagutzak erabiltzen dira, eta baita desberdinak izan daitezkeen operazioak ere; horien adibide eragiketa matematikoak egiteko trebetasuna, autoak gidatzeko trebetasuna, eta abar.

IV. Goi mailako abilezia kognitiboak

Kalitatezko jardueraren irizpideak kontuan izanik, zeregin konplexuenek zailtasun maila handiagoa eskatzen diote norbanako-

ari zeregin arruntek baino. Konplexutasun horien arrazoiak, batzuetan, zereginaren osagarrien aldaeran datza, eta besteetan, osagarrien elkarrekintzetan edo egoeren aldakortasunean.

Beraz, askotan, goi mailako abilezia kognitiboak oso beharrezkoak dira azaldutako zeregin zail horiek ondo betetzeko. Eta abilezia horiek omen dira ezagutzen, oinarrizko abilezia kognitiboen eta trebetasun teknikoen multzoak; oso espezifikoak, mugagabeak edo aldakorak diren zereginetan erabiltzeko.

Maila honetan lau mota gutxienez bereiztu behar ditugu:

- a) Arazoak konpontzeko eta erantzuteko abileziak.
- b) Erabakiak hartzeko abileziak.
- c) Sortzeko abileziak.
- d) Abilezia metakognitiboak.

V. Gizarte abileziak

Gizarte abilezia lagunekin harremanetan jartzen garen momentuan abian jartzen dugun gaitasuna da; baita taldeko helburuak lortzeko kideak gidatzeko maina ere.

Abilezia mota horretan ere, honako azpitalde hauek bereiztu beharra dugu:

- a) Gizarte harreman egokia mantentzeko abilezia.
- b) Lagun baten erantzunak aztertzeko abilezia.
- c) Lagun hurkoari emateko abilezia.
- d) Konbentzitzeko eta negoziatzeko abilezia.

3. Ondorioak

a) Aurreko azalpenetan bi hitz zehaztu dira, zer den *abilezia* eta zer den *trebetasuna*. Biak ala biak dira etengabeko sekuentzia baten zehaztasun mailak, eta *trebetasuna* erabiltzen da jokararen prozedurarik zehatzena azaltzeko. Era berean, *gaitasun* hitza alde batera utziko dugu mailarik orokorrena baita, nortasun ezaugarriak kasu.

b) Lau irizpide erabili dira abileziak eta trebetasunak sailkatzeko: konplexutasun maila, ezagutza eremuak, gaitasun motak eta estandarizazio graduak.

c) Saillkapen horretan, egiten jakiteko bi mota erabili dira, eta horien arabera, osagarriak bost klasetakoak dira: trebetasun motorrak, oinarrizko abilezia kognitiboak, trebetasun teknikoak, goi mailako abilezia kognitiboak eta gizarte abileziak.

d) Esan bezala, saillkapen horrek garrantzi handia du langileen etengabeko prestakuntza antolatzeke orduan, batez ere, helburu espezifikoak zailtasun ordenan jartzeko.

Carmelo Basoredo
Giza baliabideetako arloko arduraduna



Pio Baroja eta Martin Santos

Pio Barojak eta Martin Santosek badute parekotasunen bat edo beste: biak izan ziren idazleak, biak donostiarrak, biak medikuntza ikasitakoak eta sendagile lanetan aritutakoak, biak punta-puntako nobelagileak, biek gazteleraz idatzi zuten eta egun jada klasiko bilakatu dira. Bi izen handi. Aita militarra izanik eta batetik bestera ibili behar izan zuelako, Martin Santos ez zen Donostian jaio Larachen (Afrika) baizik, baina txikitatik izan zuen harreman estua Donostiarekin. Pio Barojak oso denbora gutxi eman zuen mediku lanetan bere eginahalak liburuetara bideratzeko, Martin Santosek, aldiz, bi lanak partekatu zituen. Frankoren diktaduraren garai latzanean Martin Santosek *Tiempo de silencio* nobela bikain, zail eta gogoangarria kaleratu zuen, garai hartako literatura hankaz gora jarritz.

Bada anekdota bat bi idazle handi hauek nolabait lotzen dituen eta jende gutxi ezaguturikoa. Duela gutxi kaleratu da Martin Santos idazlearen biografia ofiziala eta liburu horretan ere ez da azaltzen anekdota hori. Niri Javier Bello Portu konpositore eta orkestra zuzendari tolosarrak kontatu zidan, lehen eskuko pasadizoa, eta ez berari norbaitek kontatu ziolako, baizik eta bera ere partaide izan zelako gertakizun bitxi eta aparteko horretan.

Julio Caro Barojaren *Los Baroja* memoria-liburu bikaina irakurtzean dakigu nola izan zen Pio Baroja bere osabaren heriotza, Madrilen. Pasarte batean, hiletaren berri ematen digunean, kontatzen du Caro Barojak Donostiako gazte batzuek Gipuzkoako lurra ekarri zutela hilobirako. Denak ez ziren donostiarrak, ordea. Haietako bat izan zen Martin San-

tos idazlea eta beste bat Bello Portu musikagilea. Javier Bello Portu eta Julio Caro Baroja lagun minak izan ziren urte askotan, gazte garaietatik, baina halako batean betiko haserretu ziren. Egia esan, Bello Portu da Caro Barojarekin haserretu zena honek idatzitako liburu horretan bere izena behar beste eta behar bezala ez zuelako aipatu. Horrelako kontuak maiz gertatu ohi dira artista eta idazleen artean. Baina hori beste istorio bat da, beste baterako geratuko dena; heldu diezaiogun lehenengo hariari, hots, anekdota horri.

Gazte horiek, kulgurgintzan mugitzen ziren Donostiako eta Tolosako mutil batzuk ziren. Pio Baroja hil zela jakin zuten bezain agudo, iluntze hartan bertan erabaki zuten Madrilera joatea. Haietako batek autoa zeukan eta horrela, Tolosan elkartzea erabaki zuten. Javier Bello Porturen etxean elkartu eta, besterik gabe, abiatu ziren. Burgosera goizeko ordu bata edo ordu biak inguru iritsi omen ziren. Urte askoan isilik izandako pasadizo bat kontatu zidan Bello Portuk berarekin egon nintzen azkenetako batean. Iritsi Burgosko erdialdera eta Don Rodrigo Díaz de Vivar, *El Cid Campeador* delakoaren estatua erraldoiaren aurretik pasatzen ari zirela, ez bat eta ez bi, hantxe bertan autoa gelditu eta jaitsi omen ziren. Eta, ordu txiki haietan ez omen zebilen inor kalean, zer bururatuko eta, denek pixa egin omen zuten estatua handiaren kontra, tartean noski Bello Portu bera eta Martin Santos idazlea. Francoren diktaduraren urte latz eta ilunenetan gertatutako pasadizoa izaki, ez da harritzekoa denbora luzean inori kontatu ez izana.

Goizaldera iritsi omen ziren Madrilera. Zerbait gosalduta eta Barojaren etxean azaldu ziren. Ordurako, gazte horien beste lagun bat, Tolosakoa baita ere, Luis Olarra, gau osoa egona zen Pio Barojaren gorpu aurrean beila egiten. Detalle hau kontatzen du, ordea, Caro Barojak bere liburuan. Kanposantura eramateko ordua iritsi zenean Javierrek esan zion Juliori: “Hara, Julio, herriko lurra ekarri dugu osabarentzat”. Caro Barojari ideia ona iruditu zitzaion eta horrela, bere osaba lurperatzen hasi zirenean Euskal Herriatik ekarritako lurrez betetako botila hilobian hustu zuten.


Kontua da, ordea, lur hori ez dela Beran, Itzea familiaren etxean hartutakoa, ez dela Donostiatik ekarritakoa; kontua da lur hori Tolosan hartua izan zela, Bello Porturen txaleteko lorategitik ateratakoa hain zuzen ere. Gero, Caro Barojak, bere liburuan eszena hau kontatzerakoan, ez zion eman Bello Porturi honen ustez behar zen eta merezi zuen garrantzia eta hortik aurrera hasi ziren haserreak. Zergatik haserretu ziren? Bada, Caro Barojak ez zuelako aipatu nongoa den Pio Baroja lurperatuta dagoen lurra eta ez zuelako aipatu Bello Porturen izena, bera izanik Euskal Herriatik Madrilera etortzeko ideia izan zuena Barojak euskal lurraz babestuta betiko atsedena izan zezan.

Joxemari ITURRALDE
Idazlea

Hitz gezidunak

		Egunero-ko eroslea	Lapurdiko herria	Erronkarin, jetzi	Ez geza	Abesti
		Mugarriak	IRUDIKO HIRIA	Radona	Gutziz larritu	
		Bizkaiko udalerrria				
Arabar	Parisko ibaia			Gorputz		
Urte sasoi	Gudarsotek			Abar		
				Nor atzizkia	Kanpo, landa	
				Laster	Asto ar	
Iruñeko auzoa						Uraniaoa
Legegizona						Guraso arra
					Atzizkia	
					Sortu zintuena	Korrikaren antolatzailea
Batrazio mota			Hedabide mota			
Pl., intsektu mota			Interjekzioa			
					Xake-..., amaitu da	
					Kontsonantea	
... egin, goitik ari		Iodoa		Mihiseak, maindireak		

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da

1. Jauretsiak, gur eginak.
2. Diosal egin.
3. Isurkari bihurtua.
4. Bizkaieraz, solas, berba.
5. Listua, txistua.
6. Bildutako labore multzoa.
7. Eraztun.
8. Laborarien lanabes.
9. Bizkaiko udalerrria, Durangaldean.

Soluzioak

⊗	G	A	K	A	N	T	U	⊗	A	E	K
⊗	E	R	O	S	O	⊗	A	S	A	T	A
⊗	S	A	R	N	⊗	A	D	A	R	A	Z
⊗	B	E	Z	O	N	O	S	A	T	I	⊗
⊗	Z	⊗	S	A	R	O	K	O	A	R	⊗
			⊗	A	R	O	P	A	K	⊗	
			⊗	U	⊗	A	B	A	K	O	⊗

H - i - t - z g - e - z - i - d - u - n - a - k

1. Gurtuak. 2. Agurtu. 3. Urtua. 4. Autu. 5. Tuu. 6. Uzia. 7. Uztai. 8. Aitzur. 9. Izurtza.

Goitik behera